2. Hiri mistoaren eredua egungo hiri lurzorua barnean lortu beharreko helburua da (ahalik eta gehien), jarduera ekonomikoekin (zerbitzuak, gehienbat) eta etxebizitzekin sustatu behar den hiri ingurune batean (garatzeke dauden egikaritze unitateetan, -hiri lurzorua berriz dentsifikatzea-), espazio berdeak sortuz, aldi berean beste espazio berde batzuekin lotuko direnak (bere garaian berriz dentsifikatuko diren hiri lurzoruko beste egikaritze unitate batzuen alboan) bizikletetarako (bidegorriak) eta oinezkoentzako ibilbideen bidez eta, aldi berean, espazio berde berriak jadanik hiri lurzoruan eraikitakoekin lotuko dituztenak.

3. "Uribe Kosta misto" eta askotarikoa izateko Getxok egindako ekarpena hiru ildo nagusitan oinarritu beharko zen: 1. Merkataritzako zerbitzu eta jarduera bateragarria sustatzea, udalerriko hiriguneetan eta hiriguneko auzoetan. 2. Lehen sektorea garatzeko egokiak diren eremu nahiz lur guztiak urbanizaziotik babestea, eta jarduera hori nahiz haren kultur legatua sustatzea. 3. Lo-hiri izaera ez indartzeko eta dagoen desoreka ez areagotzeko, hiri ingurunea egungo errealitate fisikoari mugatzea, eta 2001eko hiri antolamendurako plan orokorrarekin eta inguru fisikoaren antolaketarekin behin betiko amaitzea, burbuila inmobiliarioa puri-purian zegoen garaian egindako plan zabalkorrak zirenak.

4. Balio erantsiko zerbitzu, merkataritza espezializatu, ingeniariaritza, aholkularitza, banku, turismo espezializatu (kruzeroak, gastronomikoa...), ostalaritza, kirol, musika eta abarreko hiri bat, oso ondo zaindutako ingurumeneko ingurune bati lotuta, bizi-kalitate eta aukera handiagoa emango diona Getxon bizitzeko erabakia hartzen duten pertsonen.

B blokea: Hiri-hazkundera eta -dentsitatea. B.1. Hiri-egitura trinkoak edo zabalak

5. Hazkundera gizakien beharren, egungo eta etorkizuneko belaunaldien asebetetze modura ulertzea, iraunkortasunari eta ingurumenarekiko errespetuari era bereizezinean lotuta. Etxebizitza, lan, merkataritza, aisialdi eta bestelakoen eskaerari lotutako gure beharrak ahalik eta era zientifikoenean zenbatu behar ditugu, eta hori guztia datozen belaunaldien baliabideak hipotekatu gabe.

6. Hirigintzak lurraldeko aberastasuna hazten lagundu beharko zuen, hazkunde kualitatibo batekin eta ez orain arte egindako hazkunde kuantitatiboarekin. Hiri lurzorua hazkundera mugatzea. Etorkizuneko hiri antolamendurako plan orokorra ez da hazkunde-baldintzetan egikaritu behar, jadanik daukagunaren eraldatze-baldintzetan baizik, iraganeko akatsak zuzentzen saiatuz, hiri zabalaren eruedetan oinarrituta.

B.2 Hiri lurzoruko dentsitatearen tipologia

7. Egokiena erdi-mailako dentsitatea bada ere, kontuan hartu behar da dentsitate egokiak Getxoko hainbat eremuren arabera aldatzen direla, eta haren inguruneari nahiz beharrei egokitu behar zaizkiela. Gainera, faktore ekonomiko eta sozialak kontuan hartu behar dira.

8. Udalerriko hiri lurzoruak (eta Getxoko banaketa geografiko bereziarekin elkartuta) ez du gehiagorako ematen, eta ez du dentsitate-gehikuntzarik onartzen bizi-kalitatean sakrifiziorik egin gabe.

C blokea. Lurraldearen antolamendua

9. Gure udalerrriak honako hauek ditu gertu, eta haietaz baliatzen da: aireportua, trafiko-dentsitate handieneko bideak (Uribe Kosta, Asua-La Avanzada), metroa, ibaiko errepidea, portukoa, hondartzetakoak; azpiegitura horiek guztiak, haien erabilera, elkarrekin lotutako konurbazio baten ikuspegi orokor batetik arautu, babestu eta oreka daitezke (milioi bat biztanle bizi garen leku batean, eta ez soilik Getxoko 80.000 biztanleren esparru baten barnean).

F blokea: Lantaldeak 1. faseari egindako zuzeneko ekarpenak

Jarraian, aurrez aurreko azken bileran aztertu gabeko adierazpenak aurkezten dira web-foroen iruzkin orokorretatik sortutako proposamen berriarekin:

A. Hiri antolamendurako plan orokorrak enplegua sortzeko jarduera ekonomikoak ezartzeko espazioak erraztu behar ditu, lurraldea errespetatuz, eta erabilera mistodun hiri trinkoaren eredu batekin bateragarriak izango direnak (etxebizitza, lana, aisialdia...).

B. Hiri antolamendurako plan orokorrak Andra Mariko lurzorua eraldatu ez dadin saiatu behar du, eraldatu gabe mantentzeko eta ingurumeneko haren erabateko balio nahiz aberastasunarekin.

C. Hiri antolamendurako plan orokorrak biztanleria mantentzeko beharrari erantzun behar dio, (belaunaldi gazteak bereziki) babestutako etxebizitzako politikak arrazoizko prezioetan sustatuz, eta hutsik dauden etxebizitzak eskuratzeko aukera izanez. Gainera, hiri antolamendurako plan orokorrak egungo etxebizitza-parkearen birgaitzea, berriz egokitzea eta egokitzapen-planak sustatu behar ditu.

D. Hiri antolamendurako plan orokorrak hiri lurzorian hutsik dagoen lurzorua okupatzen ahalegindu behar da hasieran (Areeta eta Algortan, batez ere) berriz dentsifikatuz harrera handiagoa emate aldera, beharrezko zerbitzu eta hornidurak kontuan hartuz (hezkuntza, laguntzazkoak, gizarte zerbitzuak...).

E. Hiri antolamendurako plan orokorrak babestutako etxebizitza sustatu behar du, alokairu-araubidekoa bereziki eta,aldi berean, pertsonen beharrei nahiz haien baliabide ekonomikoiei egokitu diren etxebizitza-aukerak sustatuz.

Iruzkin orokorretatik sortutako proposamena:

Toki-administrazioak Andramariko ekosistemei eta biodibertsitateari eusteko (etorkizuneko hirigintza garatzeko esparrua) ahalegin handiena egin behar du, argi eta garbi izanik aipatutako inguruneak

kontserbatzea erabat bateragarria dela Getxoko herritarren etxebizitza eskuratzeko behar erreala asetzeko hirigintzako proiektu orekatu nahiz iraunkor batekin, ingurumenarekiko harmonia batean; hori guztia, Getxoko etorkizuneko belaunaldiek aberastasun ekologiko hori eta haren efektu onuragarria baliatzeko aukera izan dezaten.

FIII.2.2. II. FASEA. AURRE AURRERAPENA

FIII.2.2.1. Laburpena eta ondorioak (saioak, dokumentazioa, ondorioak eta Deliberaren txostena)

Aurre aurrerapenaren fasean Lantalderako hiru lan-saio aurreikusten ziren. Aldiz, lau saio burutu ziren, gehi azalpen teknikoak hobetzea eta zalantzak konpontzea eskatu zuten partaideekin beste batzar bi eta interneten foro bat ireki zen.

Lan-saioak urriaren 23an, azaroaren 21ean, 2013ko abenduaren 19an eta 2014ko urtarrilaren 22an egin ziren; foroa urriaren 29tik azaroaren 14ra zabalik izan zen eta abenduaren 3tik 16ra; argibideak emateko bilerak 2013ko urriaren 30ean eta azaroaren 2an antolatu ziren.

Lana abiatu zen datorren planerako izan daitezkeen bizitoki-eskaintza kalkulatzeko metodoen teknikak azalduz, Getxoko biztanleentzat nahi den bilakaeraren arabera. Metodo bakoitzaren tarte eta eskakizunak aztertu ziren. Gai horietan oinarritu zen existitzen den higiezinen parkea dinamizatzeko beharri buruzko eztabaida, etxebizitzaren tamaina/ereduari edo edukitzeko moduari buruzkoa, etxebizitzaren arazoari lotuz, biztanleriaren piramidean zer eragin duen ere kontuan hartuz. Lantaldearen lana izan daitezkeen hiri-soluzio guztiak jasotako sei proposamenekin amaitu zen.

11 eranskinean jasotzen dira, alde batetik, partaidetzako txosten guztiak, eta bestetik, goian aipatutako etorkizunerako garapenerako sei proposamen edo aukerak. Aukera horiek, aldi berean, hasierako dokumentua idazteko oinarri modura balio izan zuten(planaren ingurumeneko ebaluatze-prozesua hasteko lehen dokumentua Ingurumeneko Sailburuordetzari erreferentziazko dokumentua eskatzeko asmoz, ikus 12 eranskina), eta hiri antolamendurako plan orokorraren bigarren fasea amaitzeko jendaurrean jartzeko garaiko gai nagusi bihurtu ziren.

Jarraian, eztabaidatutako adierazpen nagusiak jasotzen dira:

Aurrean, hondo zurian eta letra etzanarekin eztabaida garatzeko balio izan zuten “oinarrizko adierazpenak” jasotzen dira. Hondo zurian 2. web-foroan eztabaidatutako adierazpenak aipatzen dira.

Zian kolorearekin Lantaldearen azken bileran eztabaidatutako adierazpenak aipatzen dira.

Gris kolorearekin Deliberaren txostenak ateratako ondorioak jasotzen dira.

Berde kolorearekin proposamen zehatzak jasotzen dira.

A. Azken 17 urteotan udalerriko batez besteko adina 37tik 44ra igo da. Getxoko biztanleen % 20k 65 urte baino gehiago du.

2000 eta 2012 urteen artean, 25 eta 35 urte arteko 16.958 gaztek emigratu dute, eta 3.512 heldu dira beste zenbait lekutatik (13.446 gazteren migrazio-saldo negatiboa). Emigratu duten haien artean, 5.442 (kopuru guztiaren ia heren bat) Barrika, Berango, Erandio, Gorliz, Leioa, Plentzia, Sopela eta Urdulizera joan dira. 2012ko Etxebideren barneko eskaera, argitaratutako azkena, Getxoko 3.000 herritar baino gehiagokoa zen.

Plan orokorrak Getxoko herritarrek etxebizitza izateko eskaerari erantzun beharko zion eta Etxebiden jasotzen dena (babestutako etxebizitza); horrekin batera, gazteen migrazioari ere erantzun beharko zion dagoen eskaintza faltagatik, eta baita belaunaldi-aldaketa faltari ere.

A. Akordio orokor bat dago eta, haren arabera, Planak –ahal duen neurrian– Getxoko herritarrek etxebizitza izateko egindako eskaeratarako erantzunak bilatu beharko zituen. Egungo arazoek arrazoiak zein diren hobeto aztertu behar da, eta konpondu:

-Hiri antolamendurako plan orokorraren gaitasun bera edo handiagoa duten beste tresna batzuk daudela kontuan hartzea (udalaz gaindiko eta hirigintzatik kanpoko mailako araudiak) arazo horiei aurre egiteko.

- Etxebizitza garestiek (alokairuan edo erosita) eta gazteek bereziki duten ahalmen ekonomiko faltak azaltzen dute etxebizitza-eskaerarik ez izatea eta, beraz, belaunaldi-aldaketarik ez izatea.

- Proposamen-mailan: Udalak politika publikoak lehenetsi behar ditu gazteak bertan gera daitezen, eta baita etxebizitzen prezioei eusteko ere. Udalerriko gazteen aldeko apustua egitea etxebizitzarako sarbidea bermatuz, udalerrian bertan enplegurako nahiz autoenplegurako aukerak sortuz.

- Nahi dugun herri-eredurako etxebizitza-motaren zer proportzio den beharrezkoa: babestua edo librea, eta 2011eko hiri antolamendurako plan orokorrean zintzilik geratutako egikaritze unitateak egikaritu beharko ziren (BOE bereziki).

B. Plan orokorrak Bilbao Metropolitanoko beste udal batzuetatik etorritako jendearen etxebizitza-beharra aintzat hartu beharko zuen, haien artean, itzuli nahi dutenak hiri antolamendurako plan orokorrak erantzun beharko zion bizitoki-eskaintza aurkitzeko.

B. Getxoko biztanleek adierazitako beharrei erantzuna ematea lehenetsi behar dela iritzi da gehienbat, gazteei erreparatuz bereziki; hala, Bilbao Metropolitanoko beste udalerririk batzuetatik etorritako jendearen etxebizitza-beharra bigarren mailako puntua izango da.

Bigarren web-foroan aztertu zen, gehienbat, honako hau: bizitoki-eskaintzaren barnean ez direla sartu behar udalerrikoak ez diren beharretarako etxebizitzak.

C. 2001eko hiri antolamendurako plan orokorreko lurzoru urbanizagarria (250,9 hektarea), garatu eta kudeatu ez dena, landa-lurzoruaren egoeran dago.

Etorkizuneko plan orokorrak, biztanleen bilakaerak zer behar dituen gauzatu ostean, lurzoru urbanizagarriaren beharrezko gutxieneko frakzio okupatu beharko zuen (250,9 hektarea horien gainerakoa desklasifikatu egin beharko zen) Lantaldearekin lehen fasean adostutako dentsitate ertain handiko premisei jarraiki.

C. Etorkizuneko plan orokorrak, biztanleen bilakaerak zer behar dituen gauzatu ostean, **lurzoru urbanizagarriaren beharrezko gutxieneko frakzio okupatu beharko zuen** (250,9 hektarea horien gainerakoa desklasifikatu egin beharko zen) Lantaldearekin lehen fasean adostutako dentsitate ertain edo erdi-mailako premisei jarraiki biztanleen bilakaeraren beharrei erantzuteko.

D. Espazio libreen sistema orokorren gutxieneko lege-ratioa (ELSO = area bati baino gehiagori balio dien parke, plaza edo pasealekuak) 5m²/ biztanleko da. Etorkizuneko plan orokorrak 38 hektarea proposa ditzake hiri lurzoruaren barnean. Sistema orokorren 5 hektareatako defizita dugu egungo Getxoko bizilagunentzat, eta baita lohiz betetako hiri lurzoruko 2023ko biztanleentzat ere egikaritze unitateetan geratzen diren 2.100 etxebizitzarekin.

D1. Kudeatzeko falta diren egikaritze unitateak: haien antolaketan, beren mugen barnean, espazio libreen sistema orokor propioak izan beharko zituzten. Hau da, "nork bere burua hornitzen" saiatu beharko zuten, etxebizitzak hartzeko beren ahalmena gutxitu arren.

D2. Beren sistema orokorrak etorkizuneko lurzoru urbanizagarrian kokatu beharko zituzten.

Kudeatzeko falta diren egikaritze unitateek, haien antolaketan (beren mugen barnean) **espazio libreen sistema orokor propioak izan beharko zituzten**. Hau da, "nork bere burua hornitzen" saiatu beharko zuten, etxebizitzak hartzeko beren ahalmena gutxitu arren.

E. Aurtengo urtearen hasieran 29.156 etxebizitza nagusi zeuden Getxon erroldatutako jendearekin; eta 3.459 etxebizitza erroldatu gabe (okupatu gabeko etxebizitzak + bigarren mailakoak), hau da, kopuru guztiaren % 10,7. 3.459 horietatik, % 60 okupatu gabekotzat jotzen dira, hau da, 2.097 (2011ko Estatistikako Institutu Nazionalaren portzentajeekin), udalerriko etxebizitza guztien % 6,5 inguru. Teknikoki bideragarritzat jotzen da kalkulua egiteko 2.097 horien % 30 zenbatzea, 650, edo gauza bera dena, higiezinaren parke guztiaren % 2.

Plan orokorrak, hiri lurzoruko bere bizitoki-eskaintzaren barnean, hutsik dagoen etxebizitzaren portzentaje bat zenbatu beharko zuen, teknikoki bideragarritzat jotzen den handiena.

E. Positiboki baloratzen da planak hiri lurzoruko bere bizitoki-eskaintzaren barnean hutsik dagoen etxebizitzaren portzentaje bat zenbatu behar izatea, teknikoki bideragarritzat jotzen den handiena. **Gainera, zerga- eta politika-pizgarrien mekanismoak aktibatzea komenigarria izango zen etxebizitza horiek mobilizatzeko, bertako jabeen eskubideak behar beste zainduko dituen legedi batek babestuta.**

F. 2000-2013 aldian 367 etxebizitza sortu dira hiri lurzorian, merkataritzako lokalen eraldaketari esker.

Plan orokorrak, bere bizitoki-eskaintzaren barnean, gainerako lokalak birmoldatzetik ateratako ziren etxebizitza-portzentaje bat zenbatu beharko zuen.

F. Lantaldeak adostutako erabilera misto bateragarrien eredia aintzat hartuz (merkataritzako sarea, etxebizitzak, sistema libreak...) honako hau irizten da: lokalak birmoldatzetik aterako ziren etxebizitzaren portzentaje bat zenbatzea ez dela aukera onena, bizitoki-eskaintzaren barnean.

F/2. Lantaldeak adostutako erabilera misto bateragarrien eredia aintzat hartuz (merkataritzako sarea, etxebizitzak, sistema libreak...) honako hau irizten da: lokalak birmoldatzetik aterako ziren etxebizitzaren portzentaje bat zenbatzea ez dela aukera onena, bizitoki-eskaintzaren barnean. Aukeren proposamena Lantaldeak zenbatu nahi duen bezala aukera dezan:

F/2.1 Murriztailea. Ez da zenbatu behar inoiz.

F/2.2 Erdi murriztailea. Kasu eta egoeren arabera zenbatu beharra.

G. 2000-2013 aldian etxebizitza handien zatiketaren ondorioz ateratako 56 etxebizitza berri sortu dira.

Plan orokorrak, bere araudiarekin, etxebizitza handiak zatitzen lagundu beharko zuen eta, ahal duen neurrian, haien portzentaje bat hiri lurzoruko bizitoki-eskaintzaren zenbatekoan sartu.

G. Bere araudiarekin etxebizitza handiak zatitzeko erraztasuna eman beharko zela garrantzitsutzat jotzen da eraginkortasun eta iraunkortasuneko irizpideak aintzat hartuz kontsumo energetikoa murrizten dela bermatzeko.

H. Plan orokorrak bere araudiarekin hiri lurzoruan dauden atikoko espazioen erabilera erraztu beharko zuen, etxebizitza edo jarduera bateragarrietarako erabiltzeko aukera emanaz.

H. Positiboki baloratzen da bere araudiarekin hiri lurzoruko atikoko espazioak etxebizitzarako edo jarduera bateragarrietarako erabiltzea, baldin eta era arautuan egiten bada, eta espazioek segurtasun, osasungarritasun, bizigarritasun eta abarren baldintza batzuk bete ditzaten utziz.

I. Lurzoru urbanizagarrian babes publikoko etxebizitzarako metro koadroen proportzioa etxebizitzarako eraikitako azaleraren % 75 da, eta hiri lurzoruan, % 40.

Hiri lurzorurako hiri antolamendurako plan orokorraren helburuak haren % 40ko gehikuntza bilatu beharko luke kudeatu gabeko egikaritze unitateetan.

I. Oro har, beharrezkotzat jotzen da batez ere alokairuko babes publikoko etxebizitzaren % 40 handitzea hiri lurzoruko kudeatu gabeko egikaritze unitateetan.

J. Kudeatu gabeko egikaritze unitateetan, Lantaldeak egokitzen jotako aurrez adostutako dentsitate ertain-handira iristen ez badira, egungo hiri antolamendurako plan orokorrarekin eraiki daitekeen metro-

kopurua handitu beharko zuten, eredu mistoaren helburua bilatzeko jardueretako metroak gehitzeko xedea lehenetsiz beti.

J/2. Kudeatu gabeko egikaritze unitateetan, 2001eko hiri antolamendutako plan orokorrean finkatutakoa baino dentsitate handiagoa onartzen duten kasuan eta hiri-sareko ingurunearen beharren arabera, ondorengoa lehenestea: bizitokirako ez baina azken horrekin bateragarriak diren beste erabilerak batzuen dentsitatea handitzea, eredu mistora hurbiltzeko.

FIII.2.2.2. Jendaurrean jartzea, iradokizunak eta iradokizunei emandako erantzuna

FIII.2.2.2.1. JENDAURREAN JARTZEA

2014ko ekainaren 3tik uztailaren 5era, I. eta II. faseko Lantaldearen lan tekniko nahiz partaidetzazkoak jendaurrean jarri ziren udalerriko hiru auzotan (Areeta, Algorta eta AndraMari).

Herritar interesdunen iritzia jasotzeko inkestak prestatu ziren; astean 3 hitzaldi programatu ziren, auzo bakoitzean bana, eta etenik gabeko ordutegian arreta eman zen (larunbatak barne), dokumentazio guztia fisikoki eskuratzen zela bermatze aldera –Lantaldearekin egindako lanak hasi zirenetik udalaren webgunean eskura daitekeena–.

Sei inkesta paperean jaso ziren eta zortzi bide telematikoa erabiliz. Haietako guztiek biztanleen sentsibilitate guztiak jasotzen dituzte, nahiz eta Lantaldearen eztabaidei lotutako oinarritzko ideiak badiren: ingurunea zaintzeko beharra, berdeguneak eta itsasertza sustatzea eta, kultur ondarea balioan jartzea, turismoari eta aisialdi osasungarriari laguntzea, auzoetako kultur, kirol eta laguntzeko ekipamenduak hobetzea, bidezaintza hobetzea (oinezkoena, bizikletena edo ibilgailuena).

FIII.2.2.2.2. IRADOKIZUNEN EDUKIAREN LABURPENA, ETA IDAZLE-TALDEAK NAHIZ HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN UDAL BULEGOAK EMANDAKO ERANTZUNA

8 iradokizun erregistratu dira: elkarrekin egindako bi iradokizun, partikularrek egindako hiru, eta SAREBek, Viviendas de Vizcaya-k eta Alderdi Popularrak egindako bana.

Jarraian, azalduz deskribatzen dira, eta erantzuten:

Romoko Auzo Elkarrekin egindako iradokizuna 18189/2014 Erregistroa

Nagusien Etxea eta Romoko euskaltegiarako plangintza aldatzeko Gobernu taldeak zer interes duen jakinik, edozein aldaketaren aurka agertzen dira aurrez ez badituzte honako hauek aurkezten: xehetasun proiektua, eraikinen helburua eta kaltetuko diren eremu mugakideak; uste dute ekipamendu horiek zaindu egin behar direla auzoko multzo arkitektoniko adierazgarria osatzen dutelako; uste dute adinekoei zerbitzuak emateko zentro handi bat sortzeko izan ahalko zela NagusienEtxearekin jarraituz, eta babestutako apartamentuak nahiz eguneko zentro publiko bat ere sortuz; azkenik, uste dute akats bat dela NagusienEtxea Romoko kultur etxe berrira pasatzea erabilerak nahasten direlako eta Nagusien hara

pasatzean espazio gutxiago izango duelako; eta hark etorkizunean izango duen kokapenagatik ere, kultur etxe berriko hirugarren solairuan kokatuko baita.

Iradokizuna jasotzen da udalak aintzat har dezan.

Hirigintzak dituen eskumenak kontuan hartuta, ezin dira elkarteak eskatutako alderdiak jorratu, hiri antolamendurako plan orokorraren irismenetik at baitaude, eta udal kudeaketarekin zein haren erabakiekin zerikusia dute.

Idazle-taldeak eta hiri antolamendurako plan orokorraren bulegoak honako hau zuzentzat jo dute: gobernuko taldeak eremu hori aldatzeko asmoa bazuen, jarduketa integratu bat mugatu behar da, Aurrerapenean sartu den moduan, aukera hori jendaurrean jarri eta eztabaidatu ahal dadin. "AI ROMO" integratutako jarduketa horretan, babestutako etxebizitzak proposatzen dira, espazio libreen eremu bat eta ekipamenduko beste bat lurzoruaren legearen estandarrak betetzeko. Existitzen den eraikuntzako formari eustea ez da beharrezkotzat jotzen; izan ere, multzo arkitektonikoak ez du behar besteko baliorik babesaren xede den ondasunen katalogoan barneratzeko.

AndraMari GureLurra Auzo Elkarteak egindako iradokizuna; 17798/2014 erregistroa

Lehenik eta behin, errepideetako inguru fisikoaren antolaketa eta lurralde arloko plana aipatu dira honako hau adierazteko: haiek ez direla prestatzen ari etorkizuneko udal plangintzan eragina izango duten bideak. 2010eko iraileko adierazpen instituzionalaren lehen puntua aipatu du; eta iradoki du maniobratzeko behar besteko tarte dagoela bidezaintza eraginkor baten prestaketa AndraMariko etxerik eraitsi gabe egin ahal izateko; esaten da AndraMarin hiriko garapen bat egiten bada, aztertu beharko dela mantentzen diren lehenagokoak zer egoeratan geratzen diren hiri lurzoru urbanizaezinean, urbanizagarrian edo egungo hiriguneetan; hiru egoera horiei buruz hausnartzen du eraikinak mantentzearen, bolumen-handitzearen edo etxebizitza-kopuruaren aldeko apustua eginez; adierazpen instituzionalaren 2. puntua aipatzen da Santa Maria Urbanoko erdiguneak arautzeko eta beste erdigune batzuk gehitzeko mantentzen diren lehenagokoak bildutako tokietan; adierazpenaren 4. puntua aipatzen da ezinbestean eraitsi beharreko etxebizitzetako egoileen eskubideak azpimarratzeko. Elkartearen idatziarekin batera, elkarteko aholkulari Juan Ignacio de la Rosa arkitektoak egindako beste bat aurkezten da.

Idatzi horretan Aurre aurrerapenaren argitalpena eta haren definizioa kritikatzeko dira; jardueren erabilera plan orokorrarekin indartzeko beharra adierazten da; Aurre aurrerapenean aurkeztutako aukerak baloratzen dira biztanleak murrizteko aukeren iraunkortasuna aipatuz; azaldutako aukera guztiek Santa Maria Urbanoko guneeetako mugak gordetzen dituela nabarmentzen da, eta hura zuzendu egin behar dela erdigune horiei urbanizazio nahiz zerbitzuen hornidura egokia emateko, bai eta Lurzoruari buruzko Legean jasotako gutxieneko eraikigarritasuna emateko ere.

Idazle-taldeak eta hiri antolamendurako plan orokorreko bulegoak egindako iruzkina:

Aipatu behar da Aurre aurrerapena herritarren partaidetzako programan definitu zela; eskema hori jarraitu da ingurumeneko ebaluazio-prozesua hasteko eta Aurre aurrerapenak balio izan zuena hasierako

dokumentua egiteko eta orain arte egindako lanak azaltzeko. Lantaldeak proposatutako aukerak jasotzen dira, eta izan daitezkeen okupazioen aurretiazkoa adierazteko eran idazten dira.

Inguru fisikoaren antolaketak adierazten duenez, Udalbatzaren eginkizuna da, ez idazle-taldearena, udalerriko biztanle-kopurua hazteko edo murrizteko kuantifikazioa finkatzea. Hori jakinik, bere garaian indarrean zegoen lege-metodoarekin, idazle-taldeak honako hau kalkulatu du: Udalbatzak plan orokorra idazteko ezarritako biztanleen bilakaera jasoko duen bizitoki-eskaintza.

Santa Mariako erdiguneak definitzeari dagokionez, haien mugetan jarraitzen dute; izan ere, aldaketa horiek ez ziren Aurre aurrerapenaren xede, eta Lantaldeko gai nagusi modura ere ez ziren eztabaidatu.

Adierazpen instituzionalari dagokionez, azpimarratu behar da talde teknikoak indarrean dagoen legezkotasunari erreparatuko diola hura betetzeko, udalerriko gainerako tokietan bezala; hala ere, haren interpretazioa eta handik ateratako prestaketa ez da idazle-taldeak hartu beharreko erabakia, Udalbatzari dagokio baizik; nolana ere, indarrean dagoen hirigintzako araudian sartu ahalko da.

DisaroSL enpresak, Careaga Hormaza familiaren izenean, egindako iradokizuna; 17033/2014 erregistroa

DisaroSL enpresak Konporte kalearen eta Alangoren arteko oinezkoentzako bidea kentzeko iradoki du, eta Alango kalea aldatzea indarrean dagoen hiri antolamendurako plan orokorreko 16.1 egikaritze unitatetik kentzeko.

Idazle-taldeak eta hiri antolamendurako plan orokorreko bulegoak egindako iruzkina:

Iradokizun horiei buruz aipatu behar da hasierako onarpenerako erabaki beharreko antolamendu zehaztuaren xehetasunak direla; baina adierazi behar da ere, 16.1 egikaritze unitatearen mugapena ez dela aldatu Aurrerapena emateko, eta finkaren gainerakoa Martikoenan proposatutako jarduketa integratu berriaren barnean sartu dela. Familia horren lurzoruak integratutako jarduketa batean edo hornidurako jarduketa batean integrazteko aukera, hasierako onarpeneko dokumentuan erabakiko da, eta dokumentu hori ondorengo jendaurreko aldia alegatu ahalko.

Jon Lezertua Rodriguezen iradokizuna; 17865/2014 erregistroa

Proposatutako aukeren eta egindako azterketa teknikoaren desegokitasuna iradokitzen da inguru fisikoaren antolaketako bizitokia zenbatzeko indarrean dauden metodo-aukerak aztertze aldera. Udalaren aukerak inguru fisikoaren antolaketaren proposamen-markotik kanpo ez dutela egon behar argudiatzen da, Aurre aurrerapenaren aukera guztietatik at utziz, C2 salbu. Azken horretarako aukeraren bat iradokitzen da, haren barnean indarrean dagoen hiri antolamendurako plan orokorreko Arteaga nahiz Martiturriko sektoreak barnean hartuz.

Gainera, aukeretan lurzoru urbanizaezin definitutakoak eztabaidatzen dira; ezin direla hala izan adierazten da, udalaz gaindiko araudiak ez baititu nekazaritza eta abelazkuntzako edo paisaiaren balioekin jasotzen, eta ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 13. artikulua azpimarratzen du aukera guztien legezkotasun falta argudiatzeko.

Idazle-taldeak eta hiri antolamendurako plan orokorreko bulegoak egindako iruzkina:

Teknikoki esan behar da bizitokia zenbatzeko metodoen Aurre aurrerapenerako egindako azterketa oso zehatza dela, eta zuzentzat jotzen dugula; hala, inguru fisikoaren antolaketaren 60. artikulura jo behar dugu metodoaren mugak finkatzen baititu, honako hau adieraziz: A, B eta D osagaiak finkoak direla, baina ez 62. artikuluan araututako C osagaia; bertan hurrengo urteko familiaren batez besteko tamaina aurkitzeko formula ezartzen da; urte horretarako aurreikusitako biztanle-kopurua ez da mugatzen, ordea, eta haren ebaluazioa Udalbatzak ondo arrazoituta hartutako erabakiaren mende geratuko da.

Horregatik guztiagatik, Jon Lezertua Rodriguez jaunak egindako iradokizunaren baieztapenak ez dira zuzentzat jotzen.

Bestalde, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 13. artikulua egindako aipamenari dagokionez, hau da, lurzoru urbanizaezina sailkatzea desegokia dela ziurtatzeko artikulua horren aginduak betetzen ez badira, badirudi interpretazio horrek ingurumen, nekazaritza edo paisaiaren balioek babestu gabeko lurzoru guztiak urbanizagarri sailkatu beharko zirela esan nahi duela (azpiegituren babesari lotuta egoteagatik edo hiriaren garapenerako izandako egokitzapen faltagatik). Talde tekniko horren aburuz, lurzoru urbanizagarria sailkatu behar da hiriko ingurunea zabaltzeko beharren arabera biztanleen bilakaerak zer behar dituen aintzat hartuta (ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 14. artikulua), eta 13. artikulua errespetatuz beti, baina ez alderantziz.

Antón Perez Sasiak, "Real Sociedad Golf de Neguriren" izenean, egindako iradokizunak; 18007/2014 erregistroa

Golf-klubaren basoko kategorizazioa lurzoruaren egungo izaerarekin bat ez datorrela iradokitzen dute, kirol-erabilera eta -jarduerarako dena; berrikuspenean lurzoru hori kalifikatu beharko zen udalaz gaindiko plangintza egiten den kirol-jarduerarekin bateragarria gerta dadin; halaber, zelaiko jarduera nagusiarekin bateragarriak diren jarduera nahiz zerbitzu guztien garapena babesteko araudi bat eskatzen da.

Idazle-taldeak eta hiri antolamendurako plan orokorreko bulegoak egindako iruzkina:

Lurraldearen erabilera zuzenari lotutako eragozpenik ez dagoela uste da, egungo La Galea golf-zelaiaren jarduera mantentzeko buruzkoak. Nolanahi ere, bertako zuhaitziaren babes berezia ezarri ahal izateko eremu txikiak zehazteko azterketa zehatua egin ahalko da.

Hala ere, aipatu behar da lurralde antolamenduaren araudiak (plan orokorreko hirigintzako baina maila handiagokoa), arazoak sortzen dituela bertan dagoen egoera arautzeko, eta bertako jarduerak nahiz bere eraikuntzek izan dezaketen definizioa ekiditeko (plangintzarekin desadostasun-egoeran dauden erabilerak eta eraikuntzak, adibidez); nolanahi ere, desadostasun horren araudi zehatza finkatu ahalko da eta, hari esker, jadanik badiren eraikuntza eta instalazioen mantentze, kontserbazio eta modernizazio erosoagoa izango da.

Iradokizun hori aurkeztu ostean, nekazaritza eta basogintzako lurralde arloko plana behin betiko onartu da, eta hark honako hau ezartzen du: egungo La Galea golf-zelaiko lursailak nekazaritza eta abeltzaintza - trantsizioko landa paisaia kategoriaren barnean sartzen ditu.

Nekazaritza eta basogintzako lurralde arloko planoaren aurreko bertsioetan, behin betiko onarpenaren aurretik, aipatutako lursailen kategorizazioa basokoa zen, Bilbao Metropolitanoko inguru fisikoaren antolaketak ezarritakoarekin bat etorritz.

Eusko Jaurlaritzako organo eskudunari kontsulta bat egin behar zaiola beharrezkotzat jotzen da, Galeako lursailen kategorizazioaren artean dagoen disfuntzioa argitze aldera (basoko kategorizazioaren eta nekazaritza eta abeltzaintza - trantsizioko landa paisaiaren artekoa), aipatutako lurralde antolamendurako bi dokumentuetan. Hori guztia, honako hauek kontuan hartuz: alde batetik, landa-ingurunekeko babesteko lursailen kategorizazioa izaera sektorialeko alderdi bat dela argi eta garbi utziz, eta hura zehaztu behar dela landa-ingurunea babesteko eta nekazaritza-ekoizpeneko berariazko tresna baten bidez; bestetik, inguru fisikoaren antolaketako araudian (4. atala. Landa-ingurunearen babesa, 25. artikulua. Kontzeptua eta definizioa) adierazten da, inguru fisikoaren antolaketa duten landa-ingurunea babesteko esparru barnean ezarritako kategorien mugaketak izaera irekia duela.

Aurrerapenaren dokumentazioan La Galea golf-zelaiko lursailen kategorizazioa nekazaritza eta abeltzaintza - trantsizioko landa paisaia modura jasotzea aukeratu da, horri buruz hartuko den behin betiko erabakiaren zain, eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko lurralde-organoren eskudunaren iritzia entzun ostean.

M^a Jose Mardaras Landak egindako iradokizuna: 9828/2012 erregistroa

Jaya kaleko 14. zenbakian bizi zen herritar honek ondorengo eskatu du: finka horri indarrean dagoen hiri antolamendurako plan orokorrean dagoen "antolamenduz kanpoko" lurzorua kategorian ken diezaiotela.

Finka hori era horretan kategorizatuta zegoen, Trenbideko lurralde arloko planak egungo metroaren ibilbidean aldaera bat egitea pentsatuta zuelako Azkorrira gerturatzeko; finkaren kokalekuan geltoki berri bat egitea aurreikusita zegoen.

Idazle-taldeak eta hiri antolamendurako plan orokorreko bulegoak egindako iruzkina:

Iradokizun hau fase honen xede ez bada ere hiri lurzorua antolamendu xehatuaren definizioari eragiten diolako, eta orain aztertutakoa udalerriko egiturazko antolamenduaren aukerak badira ere, badirudi eskatzen duena teknikoki egin daitekeela, baldin eta trenbideko azpiegituraren eskudunak geltoki berria egiteko beharrik ez dagoela babesten badu.

M^a Nieves Santos Landarteren iradokizuna: 22765/2012 erregistroa

Ibaizabal 7ko etxebizitzako jabeak, indarrean dagoen hiri antolamendurako plan orokorraren espazio libreen toki-sistema modura kalifikatutakoa, ondorengo iradokitzen du: etorkizuneko hiri

antolamendurako plan orokorrerako kalifikazio hori ken dadila, eta bere jabetzako finka bizitoki-erabilerako agindu dadila.

Idazle-taldeak eta hiri antolamendurako plan orokorreko bulegoak egindako iruzkina:

Iradokizun hori ez da fase honen xede, hiri lurzoruko antolamendu xehatuaren definizioari eragiten baitio, eta orain aztertutakoa udalerriko egiturazko antolamenduaren aukerak dira; hasierako onarpenerako baloratuko da, halaber.

Aitor Joseba Ausoleaga Eguluzek, Sarrikobaso 7ko jabe erkidegoaren izenean, egindako iradokizuna

Jabe erkidegoak ondorengo iradokitzen du: indarrean dagoen hiri antolamendurako plan orokorreko 31-3 egikaritze unitateko antolamendua aldatzeko aukera azter dadila (UA 19-1 arau subsidiarioetan zuen izenarekin aipatzen direnak, bertatik aurreikusitako aparkalekua kenduz eta etxebizitzak diseinatuz.

Idazle-taldeak eta hiri antolamendurako plan orokorreko bulegoak egindako iruzkina:

Iradokizun hori ez da fase honen xede, hiri lurzoruko antolamendu xehatuaren definizioari eragiten baitio, eta orain aztertutakoa udalerriko egiturazko antolamenduaren aukerak dira.

Viviendas de Vizcayak egindako iradokizunak; 18039/2014 erregistroa

Iturribarriko 24.2 Egikaritze Unitaterako egungo hirigintzako aurreikuspenak gutxienez gorde daitezzen iradokitzen da. Bestalde, egungo lurzoru urbanizagarria aztertzen da, eta honako hau erabakitzen: Martiturriko sektorea garatzeko egokiena dela, Ibarbegoako eremua zehazki; hala, sektoreak berriz mugatzeko iradokitzen da aldaketa horien kudeaketa errazagoa gerta dadin. Egungo hiri antolamendurako plan orokorrean ibaioko parkea izeneko eremua desklasifikatzeak ez duela logikarik argudiatu da ere, ELSO modura kalifikatua Martiturriko sektorearen barnean hura babeste aldera.

Idazle-taldeak eta hiri antolamendurako plan orokorreko bulegoak egindako iruzkina:

Aurrerapen honetan, aukera teknikoetan, Aurrerapeneko erabilerak berriz dentsifikatzeko eta nahasteko landutako lehen proposamenari eutsi zaio, Kontzertazio Batzordeak hartutako erabakia zein den jadanik jakin arren, hau da, urbanizatzeko prozesua hastea, eta udal proposamenak ez onartzea.

Aurrekoak ez du esan nahi hartutako erabakia errespetatzen ez denik, eta adierazi behar da, bere kasuan, Aurrerapena jendaurrean jartzeko epea igaro ostean, hiri antolamendurako plan orokorreko dokumentazioan Iturribarriko 24.2 Egikaritze Unitateko plan bereziko araudiaren edukia jaso behar dela, behin betiko onartu den moduan.

Lurzoru urbanizagarrian izan daitezkeen garapenei dagokienez, Lantaldeak egindako proposamenez gain, idazle-taldeak zenbait egoera ikusten ditu, eta beti hiri-ingurunea etengabe zabalduz isolatutako garapenak edo erdigune berriak ez sortzeko. Aukera horien barnean, ibaioko parkeko eremua oso

interesgarritzat jotzen da lortu ahal izateko eta, horrenbestez, proposatutako kuantifikazioen arabera, esparru horretako lurzorua bereganatzen da.

Egoera horiek, Aurrerapena jendaurrean jarri ostean, udalak aztertu beharko ditu Irizpide eta Helburuen Akordioan etorkizunean izan daitekeen garapena erabakitzeko.

SAREBen iradokizunak (Bankuak Berregituratzetik datozen Aktiboak Kudeatzeko Sozietatea, Sozietate Anonimoa); 17863/2014 erregistroa

Iradozikun bat egiten da aukera eran, Arteagako eremuan sektore bat prestatuz, Andra Mariko erdiguneen artean hiri lurzorua zabalduz eta Ibarbengoako eremuan lurzoru urbanizagarriko sektore bat sortuz. Egoera horrek 54 hektareatako bizitzeko lurzoru urbanizagarria sortuko zuen 2.160 etxebizitzarekin (40 etxebizitza/hektareako), eta 18 hektareatako jarduera ekonomikoko sektore bat.

Idazle-taldeak eta hiri antolamendurako plan orokorreko bulegoak egindako iruzkina:

Aukera hori jaso ahalko zen, hala badagokio, Udalbatzak hiri antolamendurako plan orokorra lantzeko irizpide nahiz helburuei buruz hartutako erabakian, eta jarduera ekonomikoei muga bat jarritz beti (12 hektarea gehienez), inguru fisikoaren antolaketan adierazitakoari jarraiki.

Alderdi Popularraren iradokizunak; 17856/2014 erregistroa

Kontuan hartuz Udal Talde Popularrak iradokizunen idatzian (alegazioena izenekoa) erabilitako eskema, uste dugu erabaki zuzenena haren edukia kopiaatzea dela, eta iradokizun bakoitzaren ondoren honako hauek sartzea: idazle-taldeak nahiz hiri antolamendurako udal bulegoak iradokizun bakoitzari egin beharreko iruzkin zehatzak; hala, maila tekniko eta hirigintza-mailako iruzkinak Udalbatzarako direnietatik bereizi ahalko dira. Iruzkinak letra italikan idatziko dira iradokizunen edukitik bereizteko:

Udal Talde Popularrak Plangintza Orokorra-Aurre aurrerapena berrikusteko prozedurari ondorengo alegazioak egin dizkio, honako hauetan oinarrituz:

1.- 2001. urtean hiri antolamendurako plan orokorra onartu zenetik, 2014ra arte plangintza horretan aurreikusitakoa ez da garatu eta egikaritu. Duela zazpi urtetik plangintza orokorra berrikusteko prozesuari ekin zitzaion, eta prozedura hori denboran gehiago atzeratuko da. Guztientzat nabaria denez, horrek plangintza gure udalerrian garatzeko orduan atzerapenak eta segurtasun ezak eragin ditu. Ondorioa; etxebizitza eskasa eta oso garestia.

Idatz-zati honi egindako iruzkina ez dagokio idazle-taldeari eta hiri antolamendurako plan orokorreko bulegoari, haren edukia udal hirigintzako politikakoa baita.

2.- Duela zazpi urtetik, berrikuspen hori ez da serio egiten hasi, eta orain aurkezten da Aurre aurrerapena. Errepikatzen dugu: zazpi urteko berrikuspena, eta orain aurkezten da Aurre aurrerapena.

Idatz-zati honi egindako iruzkina ez dagokio idazle-taldeari eta hiri antolamendurako plan orokorreko bulegoari, haren edukia udal hirigintzako politikakoa baita.

Aurre aurrerapen honetan, ezin da jakin gobernuko taldeak zer nahi duen, eta idazle-taldeak zer aurkeztu behar duen.

Idazle-taldeak fase honetan ez du erabakita hirigintzako inolako zehaztapenik aurkeztea; izan ere, herritarrek parte hartzeko prozesuaren arabera, lortu nahi den gauza bakarra foroko iritziak jasotzea da. Gobernuko taldearen joerari dagokionez, uste da hark egindako iruzkina ez dagokiola idazle-taldeari eta hiri antolamendurako plan orokorreko bulegoari, haren edukia udal hirigintzako politikakoa baita.

Juridikoki, ez du ekarpenik egiten. Izan ere, Aurrerapenak irteteko pistola-tiroa izan beharko luke herritarrek jakin dezagun zer irizpide aurkeztu behar diren Getxoko etorkizuna antolatzeko orduan.

Aurre aurrerapenaren dokumentuak ez du betebeharreko izaera juridikorik, eta Aurrerapenean aukera landuagoak zehatzago sartuko dira jendaurrean eztabaidatzeko, eta Udalbatzak dagokion erabakia har dezan idazle-taldeari plan orokorra lantzeko jarraibidek emate aldera.

3.- Gobernuko taldeak ez du nahi Getxori buruzko bere ideia aurkeztu udal hauteskundeetan aurretik. Aurre aurrerapena aurkeztuta, berrikusteko prozedura horren izapidea luzatzen du. Gobernuko taldeak inguru fisikoaren antolaketarekin zer egin nahi duen jakin gabe jarraitzen dugu.

Idatz-zati honi egindako iruzkina ez dagokio idazle-taldeari eta hiri antolamendurako plan orokorreko bulegoari, haren edukia udal hirigintzako politikakoa baita.

Honako hau jakin gabe jarraitzen dugu:

EAJk Getxo nola haztea nahi duen.

Idatz-zati honi egindako iruzkina ez dagokio idazle-taldeari eta hiri antolamendurako plan orokorreko bulegoari, haren edukia udal hirigintzako politikakoa baita.

Ez dago garbi Getxorako zer garapen-idea den onena, biztanle-kopurua handitu edo txikitzeari dagokionez.

Idatz-zati honi egindako iruzkina ez dagokio idazle-taldeari eta hiri antolamendurako plan orokorreko bulegoari, haren edukia udal hirigintzako politikakoa baita.

Eta horren arabera, etxebizitzaren sorrera aztertu.

Idatz-zati honi egindako iruzkina ez dagokio idazle-taldeari eta hiri antolamendurako plan orokorreko bulegoari, haren edukia udal hirigintzako politikakoa baita.

Eta aurrekoaren arabera, zer etxebizitza-mota nahi dugun aztertu (BOE, librea, tasatua...).

Idatz-zati honi egindako iruzkina ez dagokio idazle-taldeari eta hiri antolamendurako plan orokorreko bulegoari, haren edukia udal hirigintzako politikakoa baita.

Urbanizatu ezin den eremuen zaintza nola kontrolatu behar den.

Urbanizatu ezin den eremuetako zaintzaren kontrola udalerriko hirigintzako egunez eguneko kudeaketari dagokion alderdi bat da; horren ondorioz, Aurre aurrerapeneko fasean adieraztea ez dela egokia uste dugu, hark duen edukiagatik lurraldeko babesteko udal politikari dagokion kudeaketako alderdi bat izanik.

Inguru fisikoaren antolaketarekin zer gertatuko den jakin gabe jarraitzen dugu; 8.000 etxebizitza izango zirela aurreikusten zen bertan. Baina argi dagoena da, herritarren proposamenek ez dituztela nahi. Hori ikusirik, zer dio EAJK?

Idatz-zati honi egindako iruzkina ez dagokio idazle-taldeari eta hiri antolamendurako plan orokorreko bulegoari, haren edukia udal hirigintzako politikakoa baita.

Etorkizuneko hirigintzako garapena egingarria eta ekonomikoki bideragarria den jakin gabe jarraitzen dugu.

Etorkizuneko hirigintzako garapena zein izango den zehaztu gabe dago oraindik; haren iraunkortasun ekonomikoari buruzko azterketa edo baieztapenik ezin da egin. Alderdi hori plan orokorra lantzeko fasean aztertu eta definitu behar da.

Ez dakigu lanpostuak sortuko dituen jarduera ekonomikoren bat erakarri eta ezarri nahi den. Ez dakigu gobernuko taldeak lo-hiri bat bihur gaitezen nahi duen, inolako jarduerarik gabe.

Idatz-zati honi egindako iruzkina ez dagokio idazle-taldeari eta hiri antolamendurako plan orokorreko bulegoari, haren edukia udal hirigintzako politikakoa baita.

Ez dakigu Aurre aurrerapen honetan zer politika sortuko diren merkataritza suspertzeko.

Idatz-zati honi egindako iruzkina ez dagokio idazle-taldeari eta hiri antolamendurako plan orokorreko bulegoari, haren edukia udal hirigintzako politikakoa baita.

Ez dakigu bideak garatzeko eta aparkalekuak sortzeko zer ideia gauzatuko diren.

Bidezaintza eta aparkalekuak sortzeko zehaztasuna plan orokorra lantzeko fasean egingo da.

Ez dakigu zer sistema orokorrek eta tokikoek eragingo diguten.

Sistema orokorren lehen zehaztasuna, zenbait aukerarekin eta loteslea izan gabe, Aurrerapenaren dokumentazioko aukera batzuetan sartuko da; jarraian, plan orokorraren dokumentuan idatziko da antolamendu xehatua eta, une horretan bertan tokiko sistemak definitu eta sistema orokorrak zehaztuko dira.

Ez dakigu berdeguneak eta aisialdirako eremuak nola geratuko diren.

Idatz-zati honi lotuta, aurrez aipatutakoa era generikoan aplikagarria da sistema orokorretarako eta tokikoetarako.

Ez dakigu hiri antolamendurako plan orokorrean izan daitezkeen erabilerek zer mugatze dituzten (bizitokikoa, merkataritzakoa, industria, mistoa...).

Izaera loteslerik gabeko lehen zehaztasuna Aurrerapeneko dokumentazioaren zenbait aukeratan sartuko da eta, ondoren, kalifikazio orokor eta xehatua zehaztuko da iradokizunean adierazitako erabilerak adieraziz, plan orokorraren dokumentazioko araudiko edukiaren barnean.

Jakin behar dugu ere beste sistema batzuek, plan hidrológicoak, portukoak, itsas lehorreko mugarritzeak, trenbideek eta beste batzuek nola eragin dezaketen.

Portu, trenbide eta bideko sistema orokorren eraginen mugatzeak, bai eta jabari publiko hidraulikoarenak ere, hau da, Uraren Legeko araudiaren terminologiaren arabera eremu urperagarriak, Aurrerapenean zehazki ezartzen dira; nolana ere, eremu urperagarrien bilakaera errespetatu ahalko da Errekaganeko obrak amaitzen diren heinean, eta Faturako hobekuntza hidraulikoko obrak abian jarri eta amaitzen diren heinean.

Portuko jabari publikoko zehaztasuna Aurrerapenean finkatuko da, Portu Agintaritzak udalerrinari emandako azken dokumentuaren arabera ("DEUP" izenekoak), portu-erabilerako espazioak mugatzea, portuko araudi bategina betez, estatuko administrazioaren behin betiko onarpena oraindik jaso ez duen dokumentua, baina Aurrerapenean sartzea egokia dena; izan ere, estatuko administrazio eskudunak egindako dokumentu landuena da.

Hori guztia Aurrerapeneko lehen fase batean jakingo da, eta azkenik, plan orokorraren dokumentazioan.

4.- Orain arte egindakoa aztertzen badugu, partaidetzako prozesuan herritar askok eta elkarrekin esku hartu dute Getxo nola izatea nahi duten ideiak ematen.

Ez da beharrezkotzat jotzen inolako iruzkinik egitea.

5.- Getxoko Alderdi Popularrak uste du beharrezkoa dela:

- Hiri antolamendurako plan orokorrak uzten diguna kudeatu eta garatzea, berrikusteko prozedura amaitzen den artean.

Erabakia Udalbatzari hartzea dagokion alderdi bat da hori. Hari buruzko erabaki zehatzik hartzen ez den bitartean, egungo plan orokorra kudeatzen nahiz garatzen jarraitu ahalko du.

- Etxebizitzaren eskaerei erantzutea, alokairuko babes publikoko etxebizitza sustatzea.

Aurre aurrerapenak eta Aurrerapenak beharrezko lurzuaren eskaintza zehatza dute etxebizitzaren eskaerari erantzuteko, askotariko kuantifikazio batekin Aurre aurrerapenean jendaurrean jarritako aukeren arabera, eta Aurrerapenaren jendaurrean jarriko direnak.

Etxebizitzaren eskaerari erantzute aldera lurzoria eskaintzeko plan orokorrak eskainiko duen aukera hautatzea, udalaren hirigintzako politikako erabaki bat izan behar du; ez dagokio idazle-taldeari eta hiri antolamendurako plan orokorraren bulegoari.

Gauza bera esan dezakegu alokairuaren babes publikoko etxebizitzari dagokionez.

- Gure udalerriko biztanle-kopuruari eustea. Gazteak bereziki, beste udalerrri edo autonomia erkidego batzuetara joan ez daitezzen.

Idatz-zati honi egindako iruzkina ez dagokio idazle-taldeari eta hiri antolamendurako plan orokorreko bulegoari, haren edukia udal hirigintzako politikakoa baita.

- Erantzun argi bat ematea berdeguneak eta aisialdirako eremuak zaintzeko moduari dagokionez.

Atal honi egindako iruzkina ez dagokio idazle-taldeari eta hiri antolamendurako plan orokorreko bulegoari, haren edukia udal hirigintzako politikarena eta zehazki, udal zerbitzuen eguneroko kudeaketarena baita.

- Horniduren beharrak zein diren jakitea (bidekoak, aparkalekuak, udal zerbitzuak, osasunekoak...), haiei aurre egiteko.

Haiei edukia plan orokorreko Aurrerapen eta lanketako fasean osatuko da.

- Zerga-tresnak eta laguntzak sartzea, hutsik dagoen etxebizitza alokairuan merkatura ateratzeko.

Tresna eta laguntza horien sorrera udalerrriko etxebizitzaren politikarekin bat dator, eta baita Eusko Jaurlaritzak ezartzen duenarekin Etxebizitza Lege berria garatuz; hala ere, Aurrerapen fase honetako plan orokorreko araudiaren dokumentazioan finkatu beharrik gabeko alderdiak dira.

- Herritarrei lana emango dien udalerriko enplegu-politikak sortzea, eta gure udalerrira jarduerak erakarriko dituztenak.

Idatz-zati honi egindako iruzkina ez dagokio idazle-taldeari eta hiri antolamendurako plan orokorreko bulegoari, haren edukia udal hirigintzako politikakoa baita.

Nolanahi ere, Aurrerapenaren aukera batzuetan honako hau proposatzen da: Getxoko Udalerako inguru fisikoaren antolaketan, aipatutako jarduera ekonomikoen lurzoru-eskaintza ezartzea; nolanahi ere, hiri lurzoruaren sartutako zenbait jardueratan sakabanatutako enplegu-aukerak sortu ahalko dira, bai eta bizitokiko lurzoru urbanizagarrietan etorkizunean izan daitezkeen sektoreetan ere.

FIII.2.3. HASIERAKO DOKUMENTUA

FIII.2.3.1. Sarrera

Aurre aurrerapenaren fasea eta hura jendaurrean jartzeko garaia amaitu ostean, hasierako dokumentua idazten da; dokumentu zehatza da Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-araudiaren arabera, Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organoak irizpideak zehaztuko diren erreferentziako dokumentua izenekoa egin dezan ondorengo xedearekin: plan orokorreko proposamenaren iraunkortasuneko txostena lantzea; dokumentu horrek Aurre aurrerapenean jasotako proposamenak analizatzen ditu, bai eta aurretiazko azterketen eta Aurre aurrerapeneko fasean aldi berean egindako lehen ingurumen-azterketak ere.

Horren ondorioz, hasierako dokumentua dokumentazio zabala eta garatua izan da eta, hari esker, Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organoak, Ingurumeneko Sailburuordetzak, erreferentziako dokumentua egin ahal izan du bertan jasotako edukia behar bestekotzat eta zuzentzat jotzen baitu.

FIII.2.3.2. Bere edukiaren eskema

Ingurumeneko ebaluazio-prozedurako hasierako dokumentua euskarri informatikoan ematen da 12 eranskinean, bertako edukia erraz kontsultatu ahal dadin.

Nolanahi ere, adierazitakoari eragin gabe, haren edukia, 211/2012 Dekretuan ezarritako dokumentazio zorrotza zehatz-mehatz betetzeko idatzi da; haren bidez, planen eta programen ingurumeneko ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen da.

Hasierako dokumentuak aurrez aipatutako 211/2012 Dekretuaren V. eranskina garatzen du ondorengo eskemarekin:

1. SARRERA. EDUKI DOKUMENTALARAEN ANTOLAKETA

2. 213/2012 DEKRETUKO 8.1 ARTIKULUAREN A) IDATZ-ZATI KO INFORMAZIOA

2.1. V. eranskina. a), b), c), d), e), f), g) eta i) idatz-zatietako dokumentazio idatzia

- I.- Sarrera eta aurrekariak.
- II.- Administrazio-esparrua. Erreferentziatzko ingurumeneko zehaztapen eta helburuak identifikatzea.
- III.- Ebaluatzeko xede den plan edo programaren laburpena.
- IV.- Kaltetuta izan daitekeen lurralde-esparruko ingurumenaren ezaugarriak.

2.2. h), j), k), l), m) eta n) idatz-zatietako dokumentazio idatzia.

- 8.1. H) Planaren ezaugarrien deskribapena.
- 8.1.J. Arrazoizko aukeren berariazko definizioa: kontuan hartutako plangintzako aukeren deskribapena.
- 8.1.K. Ingurumenaren egungo egoeraren alderdi aipagarriak.
- 8.1.L. Lurraldeko ingurumen eta paisaiako unitate homogeen definizioa.
- 8.1.M. Planak edo programak Natura 2000 tokiei nabarmen eragin diezaieketen edo ez, organo sustatzaileak baloratzea.
- 8.1.N. Babestutako beste naturgune batzuei kaltetutako esparruak identifikatzea natura kontserbatzeari buruzko legeriaren arabera.

2.3. h) idatz-zatiko edukari buruzko dokumentazio grafikoa

Hirigintza berriro sailkatzea eta kalifikatzea. 7 aukera.....	E:1/7.500
Lurzoru urbanizaezineko erabileren antolamendu eta arautzea aldatzea.	
6 aukera.....	E:1/7.500
Kontuan hartu beharreko gainjarritako baldintzak.....	E:1/7.500

2.4. j), k), l), m) eta n) idatz-zatiei buruzko dokumentazio grafikoa.

1. Topografikoa.....	E:1/25.000
2. Ortoargazkia	E:1/25.000
3. Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza eta basogintzako lurralde arloko plana. Behin-behineko onarpena. 2010eko azaroa.....	E:1/25.000
4. Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertza babestu eta antolatzeako lurralde arloko plana.....	E:1/25.000
5. Hidrologia.....	E:1/25.000
6. Landaretza.....	E:1/25.000
7. 92/43/CEE Zuzentarauaren habitatak	E:1/25.000
8. Fauna.....	E:1/25.000
9. Paisaia.....	E:1/25.000
10. Natura intereseko espazioak	E:1/25.000
11. Azpiegiturak.....	E:1/25.000
12. Arrisku nagusiak.....	E:1/25.000

3. 213/2012 DEKRETUKO 8.1 ARTIKULUAREN B) IDATZ-ZATIKO INFORMAZIOA

3.1. Jende interesatuaren zerrenda

4. HASIERAKO DOKUMENTUAREN EDUKIA LANTZEKO AURREZ EGINDAKO LANAK

4.1. Sarrera

4.2. Eranskinen zerrenda eta eranskin bakoitzaren sarrera

1. ERANSKINA: Aurretiatzko Azterketak
2. ERANSKINA: Aurre aurrerapena
3. ERANSKINA: HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA
4. ERANSKINA: Lantaldearen Lanak
5. ERANSKINA: Aholku Batzordearen Aktak
6. ERANSKINA: Aurretiatzko Txostena Eskatzea, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 90.1 artikulua araberara.
7. ERANSKINA. INDARREAN DAGOEN HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA
8. ERANSKINA: Kultur ondareari buruzko lanak
9. ERANSKINA: LKS dokumentuak (datu sozio-ekonomikoak)

FIII.2.4. ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUA

FIII.2.4.1. Sarrera

Plan orokorraren ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko finkaturiko prozeduraren arabera, Eusko Jaurlaritzaren ingurumen organoak erreferentziako dokumentua igorri du, ingurumen jasangarritasun txostena burutzeko eta Aurrerakinaren idazketan eta ondorengo plan orokorrean ingurumen gidaliburu gisa erabiltzeko.

Erreferentziako dokumentua Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren Ingurumen Sailburuordetzak igortzen du, 2014ko abuztuaren 11n. Getxoko Udalak bidalitako Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Lehen Berrikusketaren hasierako dokumentuaren edukiari erantzunez, bere proposamenen afekzioak analizatzeko.

Dokumentua, 2014ko abuztuaren 11n igortzen da, Ingurumen Administrazioaren Zuzendariak izenpetuta. Edukia, Getxoko hiri antolamendurako plan orokorraren Aurrerakin honen dokumentazioko ingurumen jasangarritasun txostenaren eranskin gisa jasotzen da.

FIII.2.4.2. Bere edukiaren laburpena

Ebaluatuko den planean jasotako proposamena

Atal honetan planaren zehaztapen nagusien eta funtsezko helburuen edukia adierazten da, 0 eta 6 alternatibak proposatzen dira hirigintzan berriz sailkatzeko eta berriz kalifikatzeko.

Interesdunei kontsulta egin eta haiek identifikatzeko izapidea

Herri-administrazioek eta herritar interesdunek egoki irizitako oharrak egiteko kontsulta izapidea hasi zela aipatzen da. Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzaren egoitzan eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean jarri zen eskuragarri planaren hasierako dokumentua interesdunentzat.

Ebazpena

Ondoren ingurumen organoaren ebazpena jasotzen da, Ingurumen Administrazioaren Zuzendariak izenpetuta. Ingurumen efektuei dagokienez, Getxoko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Lehen Berrikuspenaren Erreferentziazko dokumentua egitean datza. Ondoren dokumentuaren eduki nagusiak adierazten dira.

a) Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpideak

Hasierako dokumentuan jasotako zehaztapenak eta erreferentziazko helburuak egokitzat hartzen dira. Plana egiterakoan 10 ingurumen irizpide estrategiko sartu beharko direla aipatzen da. Hauek Erreferentziazko dokumentuaren atal honetan jasotzen dira, plan orokorraren edukian, ingurumen jasangarritasun txostenaren I eranskin gisa.

Aurrerakinean aurretik aipaturiko ingurumen irizpideak jasotzen direla adierazi daiteke.

b) Geografia-esparrua

Geografia-esparrua Getxoko udalerria dela bakarrik adierazten da.

c) Ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremuak

Aztertu den lurralde esparruan bereziki garrantzitsuak diren eremuak daudela aipatzen da, beren natura-balio bikainengatik, beren kultura-balioengatik edo ingurumen-arriskuengatik. Planeko ingurumen-ebaluazioaren ondorioetarako Hasierako dokumentuan modu egokian jaso direla ere adierazten da.

Zaindu behar diren eremuen artean, lehenik eta behin EAEko Natura Gune Nabarmenen Katalogo Irekian dagoen Punta Galea – Barrika aipatzen da, baita Bolueko Haraneko eta Gorrondatxeko Putzuko istilak ere.

Udal plangintzak Batasunaren intereseko habitatak dauden eremuen balioak zaintzeko beharra ere aipatzen du, bereziki lehentasunezko habitatak eta/edo bertako basoak. Kalifikatuta edo inbentariatuta dauden eremuak eta ustezko arkeologia eremuak kultura ondare gisa jasotzeko beharra aipatzen du

Ingurumen-arrisku nabarmenak dituzten uholde arrisku eremuei dagokienez, araudia errespetatzeko beharra adierazten da, baita muturreko higadura-prozesuak dituzten esparru puntualak eta akuiferoak

kutsatzeko arrisku handia eta oso handia duten eremuetan ere. Plangintzak proposamenak osatu beharko dituela aipatzen da, Hasierako dokumentuan gainjarritako baldintzatzailen teknika erabiliz.

Era berean, Hasierako dokumentuan dagoeneko antzemandako lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioa aintzat hartzea eskatzen da

Ingurumen Jasangarritasun Txostenean, planaren esparruan dauden Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesten duen 1998ko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 51. Artikuluan deskribaturiko Ingurumenaren aldetik Sentikorrak diren Guneak jaso beharko direla ere aipatzen da.

d) Jardunak egiteko egokiak ez diren inguruak

Ondorengoa adierazten da, alternatiba bakoitzak zein neurritan sustatzen duen lurzoru antropizatuak berrerabilteza eta zein neurritan emate dion horri lehentasuna, urbanizatu gabeko lurzoru naturalak artifizialdu beharrean.

Bestalde, Ingurumen Jasangarritasun Txostenean kontuan izan behar da zein ingurumen-arrisku aurkitu diren, eta proposamenak egokitu egin behar zaizkio lurzoruaren erabilera-gaitasunari, bereziki Uraren Euskal Agentziak ezarritako uholde arriskuaren mailaren arabera.

Ingurumen Jasangarritasun Txostenean eta plangintzan lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruari ezarriko zaion kalifikazioan, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako izendapenak eta irizpideak erabiliko dira. Aurrerakin dokumentuan irizpide hau xehetasunez jarraitu da.

Itsasertzaren LPSan Babes Berezi Hertsikotzat mugatuta dauden guneetako ekosistemak hobetzeko, hegalak segurtatzeko behar diren tinkatze-lanak egin ahal izatea, aipaturiko babes berezi hertsiko esparruaren balioetan ondorio iraunkorrak minimizatzeko asmoz, egoeraren arabera jardueraren baten gisa planteatuko dela adierazten da.

e) Aurretiazko kontsultetako erantzunen ingurumen-azterketa laburra

Ondorengo Administrazio eta elkarten erantzunak jaso direla aipatzen da:

- ✓ Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza
- ✓ Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- ✓ Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
- ✓ Bilboko Portuko Agintaritzaren Jabari Publikoaren eta Zerbitzu Juridikoen Saila
- ✓ Andra Mari Gure Lurra elkarte
- ✓ Bizkaiko Foru Aldundiaren Herrilan eta Garraio Saila
- ✓ Ihobe

Eragindako Administrazioen erantzunei dagokienez, hasiera baten haien edukia Aurrerakinaren alternatiba ezberdin bakoitzean aintzat hartu da, eta ondoren ingurumen jasangarritasun txostenean garatu da.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Herrilan eta Garraio Sailaren txostenari dagokionez, Aurrerakin dokumentuan "Getxoko hiria antolatzeko plan orokorraren aurrerakinean planteaturiko alternatiben mugikortasunaren azterketa" izeneko dokumentu bat eranstean dela adierazi nahi da.

f) Ingurumen-iraunkortasunaren txostenari erantsi behar zaion informazio eta dokumentazio gehigarria

IJTan, Aurrerakinaren aurreko dokumentuetan eta Aurrerakinean bertan, edukia behar adinako xehetasun-mailarekin jasota dagoela aipatzen da, hala ere, alderdi batzuetarako azterketa zehatzago bat eskatzen du:

- ✓ Bilbo Metropolitanarreko Eremu Funtzionalaren LPP eta plan orokorraren proposamenak bateragarriak direla justifikatzea
- ✓ Alternatibak hautatzeko prozedurari dagokionez, Aurrerakina bere aukerekin jendaurrean jartzeko epea igaro ondoren eta Udalak irizpideak eta helburuak finkatzen dituenean hautatuko da alternatiba planaren idazketa prozesuarekin jarraitzeko. Une honetan hartutako irtenbidearen ingurumen-justifikazioa sartuko da, egindako Jasangarritasun Txostenean alternatiba bakoitzaren azterketa banakatu bat egin dela aipatuz.
- ✓ Proposatzen diren garapen berrien eremuetako egoera akustikoa, alternatiba hautatzerakoan irizpide gisa erabili beharko dela aipatzen da, batez ere lurzoruaren erabileren eta inmisio akustikoen mailaren arteko bateragarritasuna lortzeko. Alderdi hau alternatiba hautatzeko prozeduran zehar zehaztuko da Udalak 2015 urtera eguneratutako zarata maparekin alderatuz.
- ✓ Plan Nagusiaren Berrikusketan eremuaren antolamendu xehatuari ekingo zaion esparruetan, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko 2012ko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 37. artikuluan aipatzen den Akustika Azterketa aurkeztu beharko dela ere aipatzen du.
- ✓ Plangintzan paisaia integratzia bideratzen duten berriazko neurri edo irizpideei dagokienez, EAEko Paisaia Aparteko eta Bikainen Katalogoaren Aurreproiektuan jasotako itsasoaren eraginpeko Getxo eta Sopolako paisaiak aipatzen dira.
- ✓ HAPOren dokumentazioan garapen planen informazio nahikoa jasotzea eskatzen da. Honela, garapen plan horien Jasangarritasun txostenak izan beharreko tamaina eta zehetasun maila definitu ahal izango da. Jasangarritasun txostenak informazioa modu azkar eta errazean ikusteko dokumentazio grafikoa jasoko du: taula grafikoak, argazkiak eta planoak eskala egokiaz.
- ✓ Aurreko ataletan deskribaturiko informazioa eta dokumentazioa, Aurrerakin honetan jasotako Ingurumen Jasangarritasun Txostenean aurkitzen da.

g) Kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak eta ingurumen-jasangarritasunaren txostenean duten eragina

Jasangarritasun txostenak, erreferentzi dokumentu honetan aipaturiko irizpideak nola jaso diren esplizituki adieraziko du, bereziki ondorengo alderdiak:

- ✓ Beharrei ez zaie gehiegizko neurririk ezarriko, eta aztertu egingo da eskuragarri dagoen lurzorua: bai hutsik dagoena eta bai jarduerarik gabe okupatuta dagoena. Beharren analisi objektibo bati egokituko zaio aurreikuspena.
- ✓ Lurzoruaren okupazio jasangarria egingo da, eta birgaitzea eta berrerabiltzea lehentasunezko aukera izango da hazkunde berriaren gainetik.
- ✓ Natura- eta kultura-balio garrantzitsuak zaindu egingo dira.
- ✓ Ingurumen-arriskuak edo horiek larritzea saihestu egingo da.

h) Natura 2000 Sareko ondorioak

Getxoko plan orokorraren esparruak ez du Natura 2000 Sareko eremuetan afekziorik eragiten.

i) Adierazle kuantitatiboak eta/edo kualitatiboak

Erreferentzi dokumentuan helburuak zein mailatan aintzat hartu diren baloratzeko, adierazle batzuk eranstean dira. Funtsean plan orokorra planaren ondorioak gainbegiratzeko programaren gida gisa egiten denean, ondorengo hiru alderdiei dagokienez:

- ✓ Lurzorua zenbateko intentsitatearekin artifizialdu den.
- ✓ Ingurumen-balioak berreskuratzea
- ✓ Inguruaren kalitatea

Planean, azkenean erabiliko den adierazle bakoitzerako, finkatu egin beharko da zein agintaritzak egin behar duen ikuskapena.

j) Eragindako herri-administrazioak eta herritar interesdunak o

Erreferentziako dokumentuaren II eranskinean jasotzen den zerrenda bat eranstean da.

k) Jendaurreko informazioa eta kontsultak

Informazioa eskuratzeko eta parte-hartze publikoa izateko eskubidea bermatzeko, Aurrerakinak eta Ingurumen Jasangarritasun Txostenak jendaurreko informazioaren zein izapide bete behar duen adierazten da

FIII.2.4.3. Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzaren txostena

Erreferentziako dokumentuaz gain, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzaren txosten bat jaso da. Interesgarria deritzogu, beraz bere edukia garatzen dugu. Ingurumen Jasangarritasun Txostenean aipatzen den lez, Aurrerakin honen dokumentazioan aipatzen diren alderdi asko bete dira.

Erreferentziako dokumentuak bere edukia ondorengo ataletan finkatzen du:

3 Atala. Biodibertsitatean eragina duten jasangarritasun irizpideak

Baliabide naturalen babesarekin bateragarria izateko, plan orokorrak jarraitu beharreko irizpideak adierazten ditu, 11 ataletan.

3.1 Atala. HAPOn laburpena eta jasangarritasun irizpideekiko egokitze mailaren aurre-balorazioa

Proposaturiko alternatibak deskribatzen dira eta proposaturiko zonifikazioaren kategoriak aipatzen dira, baita antolamenduari gainjarritako baldintzak ere.

Proposaturiko garapenak justifikatzeko informazio gehigarria eskatzen da. Alternatiba ezberdinek planteaturiko lurzoruaren okupazioak oso aldakorrak direnez, lurzoru berriak okupatzeko premia hobeto zehazteko eskatzen da.

4 Atala. Biodibertsitatean eragindako afekzioen analisisa eta aintzat hartu beharreko atalak

4.1 Atala. Lurzoru urbanizaezinaren tratamenduari dagokionez

Lurralde antolamenduaren ondorengo zehaztapen eta alderdiak errespetatzeko beharra adierazten da:

- ✓ Punta Galea – Barrika espazioa, “EAEko naturagune aipagarriak” katalogo irekian jasota. Babes bereziko kategoriaz kalifikatzea edo gainjarritako baldintzatzaile gisa finkatzea gomendatzen da.
- ✓ Hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala
- ✓ Bolueko Haraneko eta Gorrondatzeko Putzuko istilak
- ✓ EAEko Kostaldea Babesteko eta Antolatzeke Lurralde Plan Sektoriala. LPSk finkatutakoaren arabera babes berezi eta hobekuntza kategoriak jasotzen dira.
- ✓ Landaredia eta habitatak. Heterogeneotasun espaziala. Udalerriko intereseko landarediaren garrantzia aipatzen da eta ondoren, 92/43/CE Zuzentarauaren I eranskineko eta 42/2007 Legearen I eranskineko Batasunaren intereseko habitat naturalak adierazten dira. Era berean, bertako espezieen basoak aipatzen dira.

Basoak eta Batasunaren intereseko habitat naturalak, babes bereziko kategoriaz kalifikatzeko beharra adierazten da

- ✓ Flora eta fauna espezieak. Mehatxaturiko flora espezieak jasotzen dira, EAEn mehatxu maila ezberdinekin katalogatuak, eta gainjarritako baldintzatzaile gisa finkatzea gomendatuz.

Faunari dagokionez, interes bereziko eremuak dagozkien espezie bi daudela aipatzen da. Bolueko Haraneko istiletan afekzio negatiboak eragotziko dira, galzoriko espezie den benarriz arruntaren interes bereziko eremua delako. Gobelaren ibilgua, espezie kaltebera gisa katalogatutako arrain hiruarantzaren interes bereziko eremu bezala definituko da. Ingurumen Jasangarritasun Txostenak espezie hauek zein neurritan erasaten diren baloratu beharko du eta dagozkion neurriak proposatu beharko ditu.

- ✓ Korridore ekologikoak, konektibitatea, habitaten zatiketa. Getxoko udalerria EAeko korridore ekologikoen saretik kanpo dago, hala ere, hirigintza araudiak konektibitate ekologikoaren babeserako neurriak bultzatu ahal izango ditu.
- ✓ Paisaia. Getxoko udalerria ondorengo itsas paisaietan sartzen da: 243. Getxo eta 543. Sopela. Paisaia bi hauek gainjarritako baldintzatzaile gisa finkatzea gomendatzen da.

4.2 Atala. Proposaturiko garapenei dagokienez

- ✓ Punta Galea – Barrika katalogatutako gunea. Ingurumen Jasangarritasun Txostenak, katalogatutako gunek honetako afekzioak baloratu behar dituela aipatzen da. Etxe bizitza erabilera eta bere babesa bateragarriak ez direla adieraziz.
- ✓ Landaredia eta habitatak. Heterogeneotasun espaziala. Garapen berrien lurzoruen eta lehentasunezko habitat zein bertako basoen arteko kointzidentziak aurkitzen dira, zehazki, 6.210 eta 4.040 lehentasunezko habitatak. Ingurumen Jasangarritasun Txostenak jasandako afekzioak baloratu behar dituela aipatzen da, prebentziozko neurriak, zuzentzaileak edota osabidezkoak finkatuz. Kanpela Errekaren ertzeko landarediaren babesa finkatuko da.
- ✓ Flora espezieak. Jasangarritasun Txostenak, *juncus acutus* espeziaren lauki sareko lurretan jasandako afekzioak baloratu behar dituela aipatzen da eta afekzio negatiboak eragozteko neurriak ezarriko ditu.
- ✓ Paisaia. IJTk Lurzoru urbanizagarriak katalogaturiko itsas paisaietan eragiten dituen afekzioak analizatzea proposatzen da, baita beharrezko babes neurriak finkatzea. Ingurumen leheneratze planak eta paisaia integrazio planak egiteko beharra.

4.3 Atala. C2 alternatibari jasotako kostaldeko parkeari dagokienez

C2 alternatiba hau, egungo L4 aukeraren baliokidea da. Eman daitezkeen erabilera eta esku-hartzeek, LPPn jasotako parke metropolitarrako lurretan babes eta ingurumen-hobekuntzaren ondasun naturalak errespetatuko dituzte.

Adierazitakoa jarraituz, parkearen proposamena, babes berezi hertsia eta ekosistemen hobekuntza kategoriekin bateragarria izan daitekeela aipatzen da.

FIII.2.5. III. FASEA. AURRERAPENA

FIII.2.5.1. Laburpena eta ondorioak. (saioak, dokumentazioa, ondorioak eta Deliberaren azken dokumentazioa)

Aurrerapenerako Lantaldearekin hiru lan-saio egitea programatuta zeuden. Azkenean bost saio orokor egin ziren, beste bost bilera taldeko lana errazteko, eta foro telematiko bat hiru etapekin (abenduaren 3tik 16ra, abenduaren 16tik 2015eko urtarrilaren 15era eta otsailaren 18tik martxoaren 1era).

Lehenengo saioa azaroaren 20an egin zen, eta hiri lurzoruaren egituraren oinarritu zen: bide nagusiak, ibilguak, metroa, portua, ekipamendu publiko eta pribatuak, espazio libre orokorrak edo lurzoru horren barnean garatu daitezkeen eremuak. Hirigunea hobetzeko ideiak lantzeko orduan Lantaldea taldean banatu zen mundu guztien ekarpenak errazteko asmoz.

Eztabaida telematikoaz gain, hiru arratsaldetan bildu ziren taldean lan egiteko (azaroak 27, abenduak 4 eta 11) bigarren saioaren aurretik.

Abenduaren 16an antolatutako bigarren saioan, hiri lurzoru barneko bizitoki-ahalmenaren azterketa aurkeztu zen, bai eta talde teknikoaren lau aukera ere etorkizuneko garapenerako.

Foroaren bigarren etapan, hiri lurzorurako ideiak ematen jarraitu zen, eta udalerraren etorkizuneko garapenerako eztabaidari heldu zitzaion.

Urtarrilaren 15eko hirugarren saioan, inflexio-puntu bat izan zen, Lantaldeko zati batek alde egin baitzuen (17 parte-hartzaile elkarte eta herritarrak kontuan hartuta). Talde horrek dirigismoa argudiatu zuen bere lanean, eta alderdikeria teknikoetan; beraz, komunikatu bat irakurri ostean, altxa egin ziren. Getxoko Auzokideok elkartearen webgunean kontsultatu daiteke FIII.2.5.1.2 azpiatalean jasotzen den idatzi hori.

Bilerara bertaratutako gainerakoek aurrera jarraitzea erabaki zuten lana amaitu arte (gutxieneko batzuetara heltzea), Getxoko gainerako hiritar guztiei izan daitezkeen aukeren nahiz herria hobetzeko ideien zerrenda argi bat helarazteko; halaber, saioa utzitako parte-hartzaileei berriz etor zitezten dei egin behar zitzaiela eskatu zuten. Eskaera hau, plan orokorraren bulegoak gauzatu zuen.

Aurreko faseko Lantaldearen garapenerako irizpideetatik abiatuz (sei aukerarenak) lau aukeretara heldu zen, memoria honen FIII.3.3 atalean eta antolamendu planoetako O.1 eta O.2 plano jokoetan jasotzen dira.

Lan hori bi saiotan (otsailak 5 eta martxoak 3) eta foro telematikoko azken etapa batean (otsailaren 18 eta martxoaren 1 artean) garatu zen.

FI.2.5.1.1. HIRI LURZORURAKO ONDORIOAK

Lantaldeak aurrerapenaren azken fasean egindako lan nagusietako bat hiri lurzoruaren azterketa izan zen, eta azterketa horretatik ideia-sorta bat ondorioztatu zen. Ideia horiek gaien arabera antolatuta aurkezten dira haiek laburtzen dituen titulu batekin eta Lantaldeak egindako iruzkinen literaltasunarekin. Haietako asko hiri antolamendurako plan orokorrerako egokiak dira, baina beste asko, beren aukera edo beharrari baliorik kendu gabe, udalaren kudeaketatik baino ezin dira inplementatu.

Jarraian, Lantaldeak emandako 155 ideiak eta iradokizunak azaltzen dira bata bestengatik testuaren kolorearen arabera bereiziz: beltzez, hiri antolamendutako plan orokorrak gara ditzakeen ideiak daude, eta grisez, planaren araudi-ahalmenetik kanpoko geratuko zirenak. Laburpen honetan talde bakoitzaren gogoko aukerarekin zerikusia duen azken idatz-zati bat ageri da, bere egokitasunaren arabera baloratzen ez direnak eta udalaren aldetik erantzuna jaso beharko dutenak, nolahi ere, irizpide eta helburuen akordioaren bidez.

HIRI LURZORURAKO LANTALDEAREN IDEIEN LABURPENA ETA HIRI GARAPENETARAKO IDEIAK ETA AUKERAK.

I. Plangintza.

1. Plangintza gizakiek sortutako zarata kontuan hartuz egitea hiriguneak gehiegi ez kargatzeko.

Plangintza egiteko orduan interesgarria iruditzen zait zarata kontuan hartzea; estresa eragiteko faktore bat da, eta bizi-kalitatean era negatiboan eragiten du; horregatik, hura aintzat hartzea ongi legoke. Zarata ez dute autoek eta hegazkinek bakarrik sortzen; pertsonak ere ateratzen dugu eta, zenbaitek, handia. Plangintza egiteko garaian kontuan hartu beharreko faktorea dela uste dut eta, alde horretatik, hiriguneak ez dira gehiegi kargatu behar.

II. Gobela ibaia.

2. Ibaia ez da azpiegitura berde baten antzera bideratu eta kudeatu behar.

Ibaia sistema bizi bat da, eta ezin da hura bideratu bere funtzionalitatea gal dezan. Funtzionalitateari mesede egiten dion AZPIEGITURA BERDE baten antzera kudeatu behar da (greeninfrastructure) eta, harekin batera, ongizatea ematen diguten ekosistemako zerbitzu guztiak.

Beldurgarria da Getxoko azalera hain handia urbanizatuta ikustea, eta zehatzago, ibai eta erreken ibilguak (Gobelako ibilguaren % 40; Galindokoarena, berriz % 20). Ibaiak paisaiaren zainak dira, bertara iritsitako ura berriztatzen dute, mikroklima hobetzen dute, uholdeak ekiditen, eta geureak beren funtzionalitatea eta azalera galtzean... izan ere, mehatxu modura ikusten ditugu gutziz alderantzizkoak direnean.

Beste zenbait lekutan egiten ari diren moduan, edo ibai eta errekei beren funtzionalitatea itzultzen diegu edo... betiko arazoekin edo handiagoekin jarraituko dugu; izan ere, badirudi klima-aldaketak muturreko gertaerei mesede egingo diela! Ikusiko dugu, bada, zer uzten diegun gure seme-alabei, bilobei... eta geure buruari ere!!

3. Ibaiaren proiektu osoa egikaritzea eta haren mantentze-lana zuzen kudeatzea.

Gobela asko aztertu den gaia izan da; oinarrizkotzat jotzen da proiektu osoa egikaritzea, eta haren ondoren mantentze-lana egin nahiz ibilgua garbitzea.

4. Korridore ekologiko bat prestatzea errekek eta ibaia erabiliz Azkorrin itsasertzarekin bat egiteko.

Itsasertzari lotzeko Gobelako ibai-korridore bat sortzea korridore berdea zabalduz, eta Kandelurekin bat egin arte.

5. Gobelaren kudeaketaren plangintza egitea arro guztia kontuan hartuta.

Plangintza egiteko garaian, Gobela ibaiaren arro GUZTIA aintzat hartu behar da. Arroaren goialdean (Urduliz, Sopela eta abar) egindako urbanizatzeko jarduketek arazoak eragin ditzakete handik behera.

6. Ibaiertzetako mantentze-lan egokiak egitea.

Erreken ertzetako zuhaitz eta sastraken mantentze-lan etengabea ezinbestekoa da uholderik ez izateko.

7. Ibaiaren balioan jartzea hango errekek eta zubiak, bertako aberastasun toponimikoa seinaleztatuz.

Udalerriko ibaia eta errekek balioan jartzea; bertako zubietan seinaleztatzea, adibidez.

III. Ingurune Naturala.

8. Bertan dauden zuhaitzak errespetatzea.

Zuhaitz bat moztea pentsatzen den bakoitzean, dauden aukera guztiak aintzat hartzea eta benetan hori egitea beharrezkoa den aztertzea. URAk zuhaitz pila kendu ditu Gobelako obrekin, eta nire buruari galdetzen diot zer irizpide erabili den hori egiteko.

9. Bertako espeziekin basoberritzea.

Luma-mottoen parean berriz landatu daitezkeen landaretzako bertako espezieak basoberritu eta identifikatzea.

10. Bertako fauna behar bezala kudeatzea.

Gainerako administrazioekin koordinatutako plangintza egitea, herritarren onura lehenetsiz beti. "Arrain hiruarantzaren" kasua edo antzekoak ez dira errepikatu behar.

11. Diru publikoa inbertitu Andra Mariko lursailen erosketan, bertako balioak babesteko.

Kostaldeen mugapearen mende badago, zergatik ari da udala gure dirua gastatzen KRUZEROAK porturatzeko bi kai eraikitzen Andra Mariko lursaila erosteko erabili behar zuenean gure kultur paisaia mantentzeko eta gure ongizatearen alde egiteko? Zer hipoteka ari gara ordaintzen horregatik? Turistak autobusetan eramaten dituzte-eta Bilbora!

12. Hiri antolamendurako plan orokorra iraunkorra izateko prestatzea, eta Getxoko arrasto ekologikoa murriztea, eta horrekin biztanleen ongizatea, ekosistemen zerbitzuak berreskuratuz eta hobetuz.

Guztiaren oinarria KAPITAL NATURALA da, eta hark KAPITAL SOZIAL, EKONOMIKO ETA PRODUKTIBOAK mantentzeko behar duen guztia izaten uzten du hornitzen gaituzten ekosistemen zerbitzuen bidez, haren funtzionamenduari esker.

Arrasto ekologikoak ondasunen ekoizpen eta kontsumoaren arteko elkarrekintza aztertzen du, ingurumenean izandako eraginaren indarra erakusten. Horrenbestez, ingurunean zer eragin duen ebaluatzen uzten digu, bai eta populazioaren iraunkortasuna ere. Arrasto ekologikoa beharrezkoa eta ekologikoki produktiboa den lurraldeko gunea da (laborantzak, bazkak, basoak edo itsas ekosistemak) erabilitako baliabideak ekoizteko eta populazio jakin batek sortutako hondakinak onartzeko. Getxo arrasto ekologiko baten adibide argia da; izan ere, duena baino lurralde gehiago erabiltzen du bertako populazioak behar duena ekoizteko.

13. Ekosistemen zerbitzuak hobeto baloratzea, haiek mantendu, hobetu eta handitzea ingurumen osasungarri bat lortzeko; hala, biztanleek ongizate hobea izango dute.

Sistema naturalek onura batzuk ematen dizkiguten zeregin batzuk betetzen dituzte, eta haiek ekosistemen zerbitzuak dira (elikagaiak, ura, baliabide naturalak, klima arautzea, polinizazioa, airea purifikatzea, uholdeak kontrolatzea, ura purifikatzea, klima arautzea, gaixotasunak kontrolatzea, asebetetze espiritualak, natura behatzeko plazer estetikoak...).

14. Gure kapital naturalaren aldeko apustua egitea, gehiago ez murriztea behintzat, gure ingurunea eta gure bizi-asegurua baita.

Horrek ongizate-maila haztea dakar, eta egoera hori ez da biztanle-kopurua handituz etorriko, lurraldearen kudeaketa egokitik baizik gure ongizateak dakarren lurralde horren "osasuna" lehenetsiz.

15. Biodibertsitateak galerarik ez izatea.

Galtzen ari den landaretza eta animalien espezien aberastasuna penagarria da ERRESILIENTZA (sistemak asalduei erantzuteko duen gaitasuna, klima-aldaketaren kasua, adibidez) sortzeko duen ahalmenagatik. Erantzuteko gaitasuna handituz, biztanleen ongizatea babesten dugu eta, horrenbestez, Getxoko biztanleen gozamina, hezkuntzarako ahalmena, ikerketa sustatzeko, bai eta ahalmen ekonomikoa ere kalitatezko tokiko produktuen ekoizpen, turismo eta abarren ikuspegitik (Urduñakosaporak, adibidez). Hori dela-eta, funtsezkoa da paisaia hori ez atomizatzea, eta zelaiek (bere heskaiekin eta paseatzeko guneeekin, baina atomizatu gabe) osatutako matrize bat izaten jarraitzea. Hau da, erabilera tradizionalei eutsi behar zaie, haiei esker paisaia garatu baita eta denboran zehar iraun du. Sistemak mantendutako erabilerekin kudeatzen ez bada, sistema aldatu egiten da, eta haren ondorioz, bertako dibertsitatea eta, haren ondorioz, tokiko biodibertsitate guztiaren oinarri den paisaiaren dibertsitatea (zaitu gabel!).

IV. Itsasertzak eta hondartzak.

16. Itsasertza eta hondartzak behar bezala zaintzea.

Udalerriko itsasertz eta hondartza guztiak behar bezala mantendu, kontserbatu eta garbitzea, batez ere (portuzarra...). Haren erantzukizuna eskatzea.

17. Hondartzetako ekipamendua hobetzea urte guztian haien erabilera sustatzeko.

Hiriko hondartzen erabilera hobetzea urte guztian: hondartzetako erabiltzaileei urte guztian ekipamendu nahiz zerbitzuak eskaintzea, ez bakarrik udako bainulariei, baita urte guztian kirola egiten dutenei ere (surflariak, hondartzako boleibola, arrantzaleak...).

V. Portua.

18. Portuko ingurunea behar bezala mantentzea.

Udalerriko itsasertz eta hondartza guztiak behar bezala mantendu, kontserbatu eta garbitzea, batez ere (portuzarra...). Haren erantzukizuna eskatzea.

19. Herritarrek kontsultatuak izateko eta erabakiak hartzeko eskubidea izatea portuko proiektuetan.

Legeak eta eskumenak izan arren, Getxoko herritarrek kontsultaren berri izan behar dugu eta horretarako ahalmena, bai eta erabakiak hartzeko ere dagokion ministerioak gure itsasertzean egindako inposizioen gainean, Abra drainatzea, esaterako.

VI. Metroa.

20. Metroaren ibilbidea ahalik eta gehien iragazkortzea.

Metroaren ibilbidea ahalik eta gehien iragazkortzea udalerraren barnean oztopo bihurtu ez dadin.

21. Metroaren ibilbidea osorik lurperatzea.

3. Metroko geltokien alboan bizikleten aparkalekuak jartzea.

Metroko geltokietatik gertu toki seguru eta ondo zaindutakoak egon beharko ziren zerbitzu publikoko (Getxo Bizi, adibidez) nahiz pribatuko bizikletak aparkatzeko.

22. Iparbide-Kasune kaletik Algortako geltokira sartzeko mugikortasun urriko pertsonentzako irisgarritasuna hobetzea.

Iparbide ingurutik (hezetasunaren auzoa) Algortako geltokiko metrora heltzeko mugikortasun urriko pertsonen irisgarritasuna oso zaila da: Villamonte kaleak eta Iparbidek berak ere malda handia dute. Iparbidek Kasune kalearekin bat egiteko arrapala mekaniko bat jartzea komeni da.

23. Metroaren erabilera sustatzea maiztasun handiagoarekin eta prezio merkeagoak jarritz.

Metroa garraibide bikaina da, eta haren erabilera sustatu behar da ibilgailuen kutsadura murrizteko. Prezioak jaitsiz sustatu behar da, eta maiztasunak areagotuz.

24. Metroak bertako bagoien bat prestatu beharko zuen bizikletak garraiatu ahal izateko, eguraldi ona heltzen denean, batez ere.

25. Aireportu, Zamudio eta industrialdeetarako metroko linea bat sortzea.

Gure udalerritik ibilgailuen zirkulazioa kentzeko xedearekin.

VII. Txorierriko Igarobidea

26. Txorierriko igarobidea iragazkortzea, eta hura zeharkatzeko pasabideak hobetzea.

Igarobide bera ia oztopo gaindiezina da. Zeharkatzeko dauden pasabide urriak ez dira oinezkoentzako "komenigarriak" (tunel ilunak, espaloi estuak putzu handiekin, estali gabeko pasabide goratuak...).

27. Abiadura pixkanaka murriztea Txorierriko igarobidearen eta udalaren ibilgailu-sarearen artean.

Autobiatik zuzenean iristen diren ibilgailuek beren abiadura pixkanaka murriztu beharko zuten inbutu-efektua ez sortzeko.

VIII. Aireportua

28. Aireportuko trafikoaren kutsadura akustikoa aztertzea, eta hegazkinek aterako zarata arintzea.

Duela zenbait urtera arte, hegazkinak ez ziren ia Getxotik igarotzen, eta pasatzen baziren altuera handiagoan egiten zuten, eta hori eskertu egiten zen. Gaur egun, sarritan, Getxotik gertuegi egiten dute hegan, eta gure udalerrria gogaitu, izutu eta kutsatzen dute.

Gaur egun hegazkinek sortzen duten zarata askoz handiagoa da. Ez dakit hori hegazkinek hegan behe-rago egiten dutelako gertatzen den edo beste faktore batzuegatik, baina komenigarria izango zen Getxoko kutsadura akustikoari buruzko azterketa bat egitea.

29. Udalak aireportuari buruz, haren eskumen, zortasun eta abarrei buruz ematen duen informazioa hobetzea.

Getxoko herritarrei zortasuna, betebeharrak eta beste batzuk daudela ezagutaraztea: gardentasuna.

IX. Bidezaintza/Komunikazioa, oro har.

30. Auzoen arteko komunikazioa hobetzea.

Adibidez: Kirol-portuko zinema-aretoa arratsaldeko zortzietan joatea erraza da, oinez joan daiteke, baina Areetara gaueko hamarretan itzultzea zailagoa da gehienentzat.

31. Udalerriko auzoen arteko komunikazioa egotea maila guztietan (oinezkoa, bizikletakoa, ibilgailuen zirkulazio publiko eta pribatua, aparkalekuak...).

Udalerriko auzoen arteko komunikazioa egotea maila guztietan (oinezkoa, bizikletakoa, ibilgailuen zirkulazio publiko eta pribatua, aparkalekuak...), konpondu gabeko arazoa da, oro har.

32. Espaloiak eta oinezkoentzako bideak hobetzea genero-berdintasunaren ikuspegia txertatzeko.

Garrantzitsua da mugikortasuna, irisgarritasuna eta segurtasuna (argiztapena...) aintzat hartzea, emakumeengan pentsatuz, bereziki. Fadurako zubian, Boluan eta Villondoeta kalean argi gehiago jarri behar da. Getxoko Udaleko Berdintasunerako Sailak egindako "Hiri debekatua" azterketatik ateratako ondorioak kontuan hartzea.

33. Bidezaintza berriz prestatzea garraibide guztiak bateragarri egiteko eta tokiko saltokietarako sarbidea errazteko.

Algortako erdiguneko zirkulazioaren kaosa Villamonte, Salsidu, Bide Berde eta San Nikolas ikastolara zabaldu da. Garrantzitsua eta premiazkoa da ibilgailuen nahiz aparkalekuen bidezaintza berriz prestatzea bizikleten eta autoen zirkulazioa bateragarriak egiteko, eta dagoen merkataritza apurra dinamizatzeko.

34. Udaleko komunikazioa hobetzea auzoak batuko dituen bidegorri batekin.

Udalerriko auzoen artean garraiatzeko erraztasunik ez dagoela uste da eta, hortaz, zenbait aldaketa proposatzen dira. Alde batetik, auzoak zuzenean eta era funtzionalean batuko dituen bidegorri bat proposatzen da, bizikleta garraibide bihurtu dadin, ez aisialdirako tresna bakarrik. Horrenbestez, auzo batetik bestera bizkor eta eroso joan ahalko da autoa erabiltzeko beharrik gabe. Funtzionatuko duen sistema bat izan behar du, eta ez adabaki bat jartzea edo errepideak pintatzea errepideak partekatzeko.

35. Udaleko komunikazioa hobetzea Maidagenen lurperatzearekin jarraituz "arriskuaren zubiraino", eta estalkia oinezko nahiz bizikleten ardatz modura erabiltzea.

Proposamen serio bat honako hau izango zen: Maidagenen egungo estaltzetik arriskuaren zubiraino (800 metro), Neguri eta Gobela geltokien artean, lubaki formako metroaren lurperatzearekin jarraitzea, haren estalkian bidegorri bat eta oinezkoentzako pasealeku bat (etorbidea) proposatuz. Gainera, bereziki Algortako auzo nahiz guneen arteko lotura erraztuko zen, gaur egun metroko bideek bereizten baitituzte.

36. Jolaseta eta Leioa lotzeko ardatza hobetzea.

Ongi lotu gabeko ardatz garrantzitsua da.

37. Kirol-portuko komunikazioa hobetzea.

Kirol-portu erakargarria da, baina aparkalekuak falta dira edo garraio publikoa.

38. Hiriarteko autobus-linea bat sortzea arazoizko prezioan.

Udalerritik bertatik mugitzeko metro edo autobusaren prezioa garestiegia izateak herritarrei ez die garraio publikoaren erabilera errazten, eta auto gehiago daude oraindik. Auzoetatik igaro eta ibilbide zirkularra duen udalerriko barne-autobus bat arazoizko prezio batean jartzea aukera gehigarri bat izango zen.

Uda-garaian metrotik lanzadera modura erabiltzeko balioko zuen beste udalerrri batzuetatik gure udalerriko beste gune batzuetara (hondartzetara, adibidez) hurbiltzen direnentzat; horrenbestez, ez zen autorik hartu beharko, eta gure errepideak ez ziren ibilgailuz beteta izango.

Auzoak autobus batekin lotu beharko ziren. Zirkularra izan beharrean, hirigunera eramatea interesgarria izango zen. Adibidez, Andra Mariko auzoa isolatu samarra dago. Autobusek maiztasun handiagoa izango zutela hitzeman zen, baina udan eta neguan bakarrik dago. Bertan bizi den jendea nagusia da, eta arazo handia dago udalerrri barrutik mugitu ahal izateko. Zientoetxetik Azkorrirainoko bidegorriarekin ikusi zen hori, kendu egin behar izan baitzuten.

39. Udalerrriaren eta aireportuaren artean zegoen autobus-linea berreskuratzea.

40. Egoiliarrek doan eta bisitariak ordainduta aparkatzeko guneak sortzea, hondartzetatik gertu.

Hondartzetatik gertu ordaintzeko aparkatzeko gune bat jartzeak baina doakoa Getxoko herritarrentzat (Sopelan egiten den moduan), zirkulazioa are gehiago erraztuko zuen ibilgailu gehieneko urteko egun txarrenetan.

41. Garraio publikoaren erabilera sustatzea.

Positiboa izango zen garraio publikoen erabilera sustatzea garraio publikoko zenbait baliabide nahastea eroso eta lehiakorra egingo duten neurriekin. Adibidez: tarifak integratzea, garraio bide guztietarako txartel bakarra, familiako abonua...

42. Garraiorako prezio ekonomiko bat finkatzea.

Garraioaren gaia ere oso garrantzitsua da. Guztientzako garraio publikoa ekonomikoki eskuragarria izatea.

43. Garraio publikoa sortzea udalerriko beheko eta goiko aldeak batzeko.

Udalerriko beheko (Kirol Portua-Ereaga-Portuzarra) eta goiko aldea (Algortako erdigunea) lotzeko garraio publikoa premiazkoa da ibilgailu pribatuak pilotzen direlako udan, eta eguraldiagatik neguan. Udal arduradun batek 'zerbitzu defizitarioa' dela esan duela adierazi didate ... Txantxa bat dela pentsatzen dut.

44. Irisgarritasuna Getxoko udalerrri guztian berrikustea.

Udalerrri guztiko berrikuspen-plan bat egin behar da, eta bertan mugikortasun urriko eta gurpildun aulkietan dabilzan pertsonak parte hartuko dute; hala, bertatik bertara ikusiko dituzte: espaloietako azpialdeak, haietarako sarbideak, berdeguneak, kirol-barrutiak, gizarte-eraikinak, aisialdirako barrutiak ...

Lokal berriei eta berrikuntza garrantzitsuak egiten dituztenei honako hau eskatzea: mugikortasun urriko pertsonentzako irisgarritasuna, beharrezkoak diren ikuskaritzak eginez arlo horretako araudia betetzeko, eta bainugeletan egokitutako komunak jartzea.

X. Oinezkoen Bidezaintza

45. Oinezkoentzako sarea hobetzea auzoen arteko lotura hobetzeko.

Oinezkoentzako lotura handiagoa udalerriko guneen artean, erosoak izango direnak, zuhaitz eta jarlekuekin. Lehengoan moduko jarlekuak, eta ez banakako eserlekuen asmakizun hori, gaur egun hainbeste erabiltzen direnak eskaleek bertan lo egin ez dezaten.

46. Oinezkoen beharrak lehenestea, ez ibilgailuena.

Udalerriko kale guztietan oinezkoen beharrei lehentasuna eman behar zaie, ez ibilgailuenei (zebrabide seguruak, semaforoak eta abar). Gainera, behar besteko hirigintzako neurriak jasoko dira, eta haiek ibilgailuen abiadura murriztera behartuko dute zebrabideetara heldu aurretik.

Oinezkoen segurtasuna bermatzea ibilgailuenen aurretik, zebrabideak goratuz, eta ez alderantziz; espaloiak zabaltzea; gehieneko abiadura seinalizatzea hiriko txirrindularientzat oinezkoentzako guneeetan nahiz espaloietan, eta haiek egin dezaketen ibilbidea ondo ikustea.

47. Oinezkoentzako ibilbide erosoak egitea.

Oinezkoentzako ibilbideek itzalguneak izatea, jarlekuak, iturriak eta abar; hala, biztanle-talde guztiek erabili ahalko dituzte (adinekoek...).

Oinezkoentzako ibilbideak joan-etorriko gunek izateaz gain, aisialdirako gune ere bihurtzea, jarleku, itzal, teilatuak dituzten tokiekin euria egiten duen egunetan aprobetxatzeko ... Espazio publikoak partekatzen dituzten oinezko nahiz pertsonengan pentsatzea.

48. Oinezkoentzako ibilbide berrien sorrera ahalik eta gehien sustatzea.

49. Kale estuak oinezkoentzat jartzea.

Hiriguneko bide-sarea zabalegia dela uste dugu zenbait tokitan; horren ondorioz, kale estu batzuk oinezkoentzat jarri beharko zirela uste dugu.

50. Algortako goiko eta beheko gunek eroso antolatzea.

51. Portuzarrean hiri-igogailu bat jartzea auzoak udalerriko beste gune batzuekin duen lotura hobetzeko.

Portuzarrean igogailu bat jartzeko proposamena, San Nicolas kalearen amaieran, lehen zaborrak zeuden tokian, Portuzarreko goiko aldea hondartzako nahiz kaiko pasealekuko gunearekin bat egiteko.

52. Portuzarra eta Arrigunagaren arteko oinezkoentzako pasabidea jartzea Kantarepetik.

53. Marturriko estartan oinezkoentzako sarbidea hobetzea.

Komenigarria iruditzen zait Marturri kaleak, tren-geltoki berritik Zientoetxeraino, espaloi bat izatea oinezkoak babesteko.

XI. Bizikleten Bidezaintza

54. Bidegorrien kilometro-kopurua handitzea.

55. Bereizitako bidegorriak prestatzea trafiko partekatuaren ordeztu, komunikatzeko bide eraginkorrak eta funtzionalak izango direnak.

Bidegorrien loturak udalerraren barnean joan-etorri funtzionalak egiten utzi behar du. Noranzko bakarrek ibilbideak nagusi dira, eta hiriko txirrindularientzat itzuli guztia ematea ez da funtzionala.

Bereizitako bidegorriak nahi ditugu, txirindulari, oinezko eta ibilgailuen artean errespetu falta handia baitago. Eta biztanleko sektore guztietarako bide-hezkuntza gehiago edo hezkuntza hori berriz egitea behar da.

56. Garapen berrietako bidegorri-sarea sartzeari, eta egungo bidegorriari lotzea.

Ezinbestekoa da bidegorriak hirigintzako garapen berrietan sartzeari eta jadanik badirenekin bat egitea; halaber, bideetan obraren bat egiten den bakoitzean bidegorri bat egiteko aukera balora dadila.

57. Auzoetako goiko eta beheko gunek laukitan lotzea, Algorta bereziki, eta auzoak bereizitako bidegorriekin.

58. Udalerriko ikastetxe guztiak kokatzen diren auzoei lotzea.

Getxoko ikastetxe guztiek ere eragiten dieten auzoei lotuta izan beharko zuten bereizitako bidegorri horien bidez.

59. Bidegorriekin lotzea espazio libre guztiak, bai eta eskolako ekipamenduak, berdeguneak eta Azkorri aldea ere.

60. Algorta Berangori bidegorriarekin lotzea Salsidu kaletik.

Salsidu eta Algorta-Berango lotzen dituen zubiak espaloiak zabaldu beharko zituen eta bidegorri bat barnean hartu bi udalerririk batzeko; gainera, jadanik badagoen sareari lotuko zitzaion, eta Getxo leraino helduko zen. Kezkagarria da gunehorretan ibilgailuek zer abiaduratan zirkulatzen duten ikustea.

61. Bidegorriko zatia eta bertako segurtasuna hobetzea Los Chopos etorbidearen eta Algortako erdigunearen artean.

Getxo 1 Fudurari lehenbailehen lotzea.

62. Ibarbengoako geltokitik bidegorri bat sortzea existitzen den sareari lotzeko.

Komenigarria ikusten dut Metroko geltoki berritik Martiturri 1 arte bidegorri bat egitea, geltokia existitzen den sareari lotzeko.

63. Portuzarra eta Arrigunaga bidegorriarekin batzea.

Portuzarreko aparkalekua Arrigunagako hondartzarekin elkartzea egurrezko pasabide baten bidez; hala, oinezkoak eta txirindulariak pasa ahaliko dira. Ereagako bidegorria Bidezabalkoarekin elkartuko nuke. 500 metroko pasabidea da. Jakin badakit udalerrirako inbertsio handia ekarriko zuela.

64. Oinezkoak eta bizikletak lotzeko ardatz bat sortzea ibaitik Gorrondatxeko hondartzaraino.

Beharrezkoa da korridore berde bat sortzea (oinezkoentzat nahiz bizikletetarako) Gobelako errekaetan, eta Gorrondatxeko hondartzaraino helduko dena; hala, Galeako pasealekuarekin batuko zen, eta bizikletan ibili ahalko da ere bertan. Getxok oinezkoentzako eta bizikletak ibiltzeko “ingurune berdea” izan beharko zuen eta, hari esker, Areetatik Gorrondatxeraino heldu ahalko zen itsasertzetik nahiz barnealdetik.

65. Bizikletetarako ibilbide bat sortzea Galeko pasealekuan.

Galeako pasealekuak Gorrondatxerainoko bidegorria izan behar du.

66. Egungo bidegorri-sareko “puntu beltzen” azterketa bat egitea.

Egungo bidegorri-sareko “puntu beltzen” azterketa bat egitea, eta haren barnean istripu nahiz gorabeheren puntuak jasoko dira. Gainera, herritarren partaidetzarekin, objektiboki nahiz subjektiboki segurutzat jo gabeko zatiak eranstea. Azterketa etorkizuneko plangintza berrirako erabiltzea.

XII. Ibilgailuen Bidezaintza

67. Getxo 30 km/h-ko hiri izendatzea.

Getxo instituzionalki 30 km/h-ko hiri izenda dadin eskatzen dugu ofizialki, mugikortasun iraunkorraren alde eginez.

68. 50 km/h-ko gehieneko abiadura finkatzea udalerriko bide nagusietan.

Udalerriko bide nagusiak. Barneko ardatz modura jardungo duten udalerriko kaleetan (Los Chopos etorbidea, Zugatzarte, Algorta etorbidea...), 50 km/h-ko abiadura izango da, gehienez ere. Hirigintzak beharrezko neurriak ezarri behar ditu gehieneko abiadura hori bete dadin.

69. Ibilgailuek sortutako kutsadura akustikoaren azterketa egitea.

Ibilgailuek sortutako kutsadura akustikoaren azterketa egin beharko zen. Uribe Kostako igarobidetik pasatzen diren ibilgailuak Getxoko hainbat lekutatik entzuten da, eta zarata murrizteko panel edo zuhaitzak jarri ahalko ziren.

70. Getxoko merkataritza-kaleetako aparkatzeko plazak ez kentzea espaloietan hobekuntzak egiteko edo bidegorriak sartzeko.

Espaloietako hobekuntzak egiteagatik ezin dira aparkatzeko plazak kendu enpresak dauden merkataritzako kale eta guneeetan, edo haietatik gertu dauden guneko edo kaleetan. Bidegorri berriak sortzeak ez du esan nahi aparkatzeko plazak kendu behar direnik enpresak edo ostalaritza dauden merkataritzako guneeetan, eta ezta haietatik hurbil dauden kaleetan ere. Bidegorri berriak sortzen badira, ez dira pertsonak enpresetara sartzeko eragozpen bihurtu behar.

71. Berango alderako Salsiduko biribilgunearen seinaleztapena hobetzea.

Berango alderako Salsiduko biribilgunea zirkulaziorako puntu gatazkatsua da. Komenigarria izango zen seinaleztapena hobetzea garaiz biribilgunean sartu aurretik.

72. Los Chupos etorbidearen diseinua Faturatik Salsiduraino aldatzea.

Beharrezkoa da Faturako biribilgunetik Salsiduraino autoetarako errei-kopurua murriztea biribilgune hori oinezkoentzat nahiz txirrindularientzat hain arriskutsua gerta ez dadin, ikusirik eskola-ordutegian zenbat adingabe ibiltzen den bertan.

73. Ibilgailu-trafikoaren antolamendua aldatzea Zientoetxe eta AndraMarirako, oro har.

Ibilgailu-trafikoaren antolamendua aldatzea Zientoetxe (Muruakaletik aurrera)gunera sartzeko bakarrik izan dadin, Diliz, Martiturri, Saratxaga eta Gorrondatzen erradialak jarritz, eta handik ateratzeko (noranzko bakarrean)Goienetxetik eta haren luzapenean egindako bide berri batetik, Juan Vallejorekiko paraleloan, Kortiñe kaleraino.

74. Zientoetxe errepideko kalea behar bezala egokitzea.

Zientoetxe errepidea, Andra Mari inguruko bide nagusia da; hala izanik, egokitu egin behar da, eta bertako espaloien zabalera eta erosotasuna nabarmen hobetu daitezke. Zientoetxe errepidea (Andra Mariko bide nagusia) hobetu egin behar da bertako espaloien zabalera dagokionez (jarleku eta bertako zuhaitzekin), guneren bat salbu (Arteaga, Iberre, Saratxaga, Moreaga, Zientoetxe), handik gertu dauden etxebizitzek ez baitute bideragarria egiten. Abiadura ibilbide guztian mugatzea (gehienez 40).

75. Estartak hobetzea.

Andra Mariko estartek ere hobetzeko tarte zabala dute; behar bezala garatuta, inguruko bide-sarea egituratuko dute eraginkorrago nahiz erosoago bihurtuko.

76. Pasabidea berriz zabaltzea Martiturri estartako trenbidearen azpitik.

Pasabide hori autoetarako berriz ireki beharko zen, gune horrek isolatu egin baitu, eta guztiei toki beretik joatera behartzen die, errepide horretan bi ikastetxe egonik.

77. Getxoko zaborra eramateko kamioien trafikoa desagertzea, eta haien ibilbidea Arteako ordeko bide batetik bideratuko da.

78. Salsiduko biribilgunetik Faturako biribilgunerako bide-zatiaren lagapena kudeatzea.

Lagapena eskatu egin behar da, eta horrek aipatutako bide-zatiaren tokiko kudeaketa eskatuko du, foru-eskumenekoa izan beharrean; egoera horrek ondorio positiboak ekarri behar ditu beti.

79. Zebrabideen parean ez da auto edo edukiontzirik egongo gutxienez 2-3 metroko tartean.

Autoek ez dute behar bezala ikusten norbait pasa behar den, nahiz eta espaloiak errepidera atera ... ikusi beste hiri batzuetan zer gertatzen den ... guztiei eragiten die arriskua, haurrei bereziki! Noizbait haiengan pentsatuko dugu eta, hala, benetako parkeak sortu?

XIII. Bidezaintza – Aparkalekuak.**80. Lurpeko aparkalekuak sortu lur gainekoak desagertzeko eta kaleak libre uzteko.**

Udalerrri honetan aparkatzea oso zaila da, nahiz eta bi aldeetan ibilgailuak aparkatuta dauden kaleak nagusitu, izan daitekeen hiriko pasaia bakarra izanik. Lurpeko aparkalekuak lur gainekoak baino hobeak direla uste dut eta, hala, espazio orokor gehiago irabaziko genuke.

81. Aldirietako aparkalekuak prestatzea udalerriko hainbat toki/ekipamenduetarako lanzaderak jarritz.

Aldirietako aparkaleku batean aparkatuko den hiriko mugikortasun-sistema bat garatzea, lanzadera-zerbitzua izanik Getxoko guneak kirol-portuarekin, Azkorriekin bat egiteko.

82. Sestra azpiko aparkaleku pribatuak sustatzea.

Obra lizentzia berrietan aparkalekuko plaza gehiagoren sorrera sustatzea. Aparkatzeko plaza gehiago egon beharko ziren.

83. Bide berdeetan aparkaleku bat eraikitzea.

Gobelako ibilguko obrak amaituta, bide berdeetan aparkaleku bat eraikitzea Villamonte eta Algortako erdiguneari trafikoa arintzeko.

84. 10 minutuko aparkaldia arautzea Villamonte plazan inguruko merkataritza dinamizatzeko.**XIV. Jarduera ekonomikoak.****85. Jarduera ekonomikoak lehenetsi eta sustatzea.**

Funtsezkoa da jarduera ekonomikoak lehenetsi eta sustatzea. Kaleak biziak izan daitezen ahalegindu behar da.

86. Lehen sektorerako lurzoru urbanizaezinaren alokairua erraztea.

Lurzoru urbanizaezin geratutako lurzoruaren kasuan ere, jabeek lursailen borondatezko alokairua erraztu beharko zutela esan genuen araudi malgu baten bidez; araudi horrek lehen sektoreko jardueri lagundu eta haiek ere babestu, erraztu eta sustatzen dituzten jabeen eskubideak gordeko ditu.

87. Getxoko profesionalen TAO txartela izateko aukera ematea beren mugikortasuna hobetze aldera.

Lan egiteko ibilgailu bat behar duten industriako jardueren TAO txartela eskuratzeko eskubidea izan beharko zuten. Gaur egun, aparkalekuaren kostua gastu oso handia da pintore, igeltsero, iturgin, argiketari eta abarrentzat. Beren jarduerengatik Getxon zergak ordaintzen dituzten profesionalak, eta baztertuta daudenak.

88. Kaltetutako kaleetako enprekin oinezkoentzako guneak jar daitezkeen edo ez aztertzea.

Merkataritzako edo enpresak dauden gune bat oinezkoentzat jartzea proposatuko balitz, aipatutako gune horretako enpresen iritzia aintzat hartu beharko litzateke.

89. Beharrezkoa da merkataritza eta enpresako guneetako merkataritza-lokalen alokairuak murriztea, udalerriko enpresa-jarduera sustatu eta ahalbidetzeko helburuarekin.

90. Era ordenatuan eta estetika onargarriarekin saltokiei beren establezimenduetatik kanpo beren produktuak ateratzeko aukera eskaintzea; horrekin batera, edozein sektoretako enpresek apaintzeko elementuak eta, hala badagokio, sustapenekoak, bide publikoan sustatzeko aukera izatea.

91. Kontuan hartuz merkataritza, enpresako zentroetan edo handik hurbil dauden guneetan sustapen nahiz dinamizatzeko ekitaldi eta jardueren merkataritza, ostalaritza eta enpresak dinamizatzen, sustatzen dituztela, udalerritako zentro horietan sustapeneko ekitaldi eta jardueren horiek egin ahalko dira.

92. Udalerriko merkataritza eta enpresako guneak adieraziko dituzten seinaleak ezartzea.

93. Udalerriko merkataritza eta enpresetako kale nahiz guneetako argiztapena hobetzea eskatzen da.

Udalerriko enpresa-kopuru esanguratsu batek egungo argiztapena eskasa dela dio.

94. Jarduera ekonomikoa kulturaren bidez sustatzea.

Beste era bateko ekonomia sustatu behar da, kalitatezko produktuak, esaterako, baina badira beste asko ere: tokiko kultura, gastronomikoa historikoa... Baseri historikoak zaharberrituz turismoari baina, aldi berean, kulturari ere beste esparru ekonomiko berri bat irekiko zitzaie! Natur ondareari lotuta...altxor bat da, baina hori ikusten jakin egin behar da!

XV. Espazio libreak.

95. Espazio libreen sistema orokorrak zabaldu.

Sistema orokorrak gune libreetako sistema orokorrak izan behar dute, eta baita oinezkoentzako guneak ere. Horrek garrantzitsua izan beharko zen ibilbide-horniduraren aurka egiten du, sare bat ezartzen den neurrian.

Getxok ez du sistema orokor handirik (Central Park). Getxon ez dago gunee libreetako sistema orokorren hornidura handi bat.

Hori jarduketa integratuekin emango den tratamenduari lotuta dago.

Etxebizitzako gunee libreetako zerbitzu orokorren 5m² egon arren, ez da behar bestekotzat jotzen Getxo olio-orban baten modura hazi baita, urbanizatutako continuum baten antzera. Integratutako jarduketaren tratamenduaren planteamenduak gordinetia dirudi, ez baitu zerbitzu orokorrak sortzerik nahi gunee libreen defizitak osatzeko.

Existitzen den hiri lurzoruan gunee libreen behar adina zerbitzu orokorretik, irizpide horretatik abiatu beharrean, dagoen errealitatearekiko irizpide kritikoago batetik abiatu gaitzke: ez da behar adinakoa, eta hura integratutako jarduketetatik etorritako hornidurarekin hobetu nahi dugu. Funtsezkoa iruditzen zaigu planak gunee libreen hornidura hobetu bat lortzea egungoarekin alderatuz, eta herritarrek onar dezakeena.

96. Espazio libreen sistema orokorren arteko lotura oinezkoentzako sistema orokorren sare on batekin hobetzea (oinetzkoentzako ibilbide nagusiak).

Sistema orokorrak gunee libreetako sistema orokorrak izan behar dute, eta baita oinezkoentzako guneeak ere. Horrek garrantzitsua izan beharko zen ibilbide-horniduraren aurka egiten du, sare bat ezartzen den neurrian.

Egituratutako gunee libreen sare bat ezarri behar da.

97. Espazio libreen ekipamenduak hobetzea erakargarriagoak izan daitezen.

Espazio publiko ireki horietan jarlekuak, itzalak, argi egokiak, iturriak.. jarri beharko ziren, espazio erakargarriak, seguruak izan daitezen; hala, jendea bertan gusturago egongo zen.

98. Behar besteko tamaina duten espazio libreak prestatzea hiriaren ordeiz isolamendu naturala sortzeko.

Espazio libre guztiek, zeregin erreal bat izan dezaten, honako hau behar dute: bertan daudenak ingurukoetatik isolatzea, hau da, uharte baten modura funtzionatzea, eta Getxok, jakina, ez du halakorik. Gainera, gunee horiek guztiak elkarri lotuta egon behar dute pertsonen mugikortasuna era osasungarrian egiteko, eta bertan bizi diren espeziarena, tokiko biodibertsitateari eutsi eta haren alde egiteko zereginaren bete dezan. Horrekin guztiarekin, behar ditugun ekosistemako zerbitzuak hobetuko ditugu, adibidez: airea purifikatzea, tenperatura kontrolatzea, uraren zikloa arautzea, osasun fisiko eta mentala... Eta haien oinarria, biodibertsitatea, esaterako.

99. Parte hartzeko prozesuak sortu espazio libreak prestatzeko.

Espazio libre horietan, haien prestaketan herritarren parte hartzea sustatu beharko zen gertu bizi diren biztanleen beharrei egokitzeko, eta erabil dezaketela aurreikusten den beste edozein talderen beharrei.

100. Espazio publikoa ez pribatizatzea.

Tabernetako terrazek oinezkoentzako guneak eta espaloiak okupatzea kezkarria da. San Nicolas plaza, Paulino Mendivil, Andres Larrazabal esaten dugunaren adibide dira.

101. Xake plaza berriz pentsatu eta antolatzea herriak erabiltzeko plaza izan dadin.

Plaza hori berrikusi beharreko gaia da, deserosoa da, karpa bat jartzeko balio du, baina ez du herriko plazaren zeregina betetzen.

102. Zugatzarteko parkea hobetzea.

Zugatzarte asko erabiltzen zen parkea zen duela urte batzuk. Pasatzeko eta txakurrentzako gunea da gaur egun. Trafikoak sortutako zarataren arazoa konponduz, besteak beste, parke bikaina izan ahalko zen.

103. Romoko espazio libreen eskaintza hobetzea.

XVI. Ekipamenduak.

104. Herritarrek pare hartzeko mekanismoak sortzea eraikin publikoak garatu eta prestatzeko.

Ekipamendu publikoak dituzten eraikinetako garapen eta prestaketan herritarren parte hartzea sustatu beharko zen. Horrenbestez, gizarteak bere egiten du, eta haren kontserbazio eta babesa sustatzea lortzen da.

105. Ideia orokor modura, ekipamenduak deszentralizatzea eskaintza hobetu eta bideak arintzeko.

Ekipamenduei dagokienez, deszentralizatzeko ideia proposatzen da. Hala, herritar bakoitzak zentro horiek beren etxeetatik gertuago izango dituzte eta, horrenbestez, bertara oinez edo bizikletan joan ahalko dira ibilgailurik erabiltzeko beharrik izan gabe.

Kirol-ekipamendu gehienak Faturan daude gaur egun, biztanle gehienak bizi diren tokietatik urrun eta, arrazoi horrengatik, aparkalekuak beteta egoten dira. Igerileku batek, eta Santa Maria de Guechoko probalekuan gutxieneko kirol-zerbitzu batzuk jarrita, horren zati handi bat erraztuko zuten. Gobelak egin duen moduan.

Kultur ekipamenduekin gauza bera proposatzen da. Auzo guztietako balioanitzeko gelak dituzten zentro txikiagoak deszentralizatu egiten dira, eta udalerriko herritarrengandik gertuago geratzen; hirigunera oinez joaten dira, eta irakaslea edo jarduera egin behar duena da zentro batetik bestera joango dena ekintzaren arabera, ez erabiltzaileak.

106. Ekipamendu eta espazio libreen azterketa integratua sustatzea.

Udal maila orokorrean talde integratu bat izan behar duen ekipamendu nahiz espazio libreen proposamen bat berrikusi edo hobetzea proposatzea, aldagai geografiko, sozioekonomiko, demografiko eta beste batzuei eragiten diena. Maila integratuan baloratzeko aukerarik gabe, ziur asko baliozkoak izango ez ziren proposamen berezietatik harago. Baina uste dut udalerriko guneen arteko banaketa oso diskriminatzailea dela ikus daitekeela, eta horrek bi jarduketa-lerro orokorrekin du zerikusia: alde batetik, hainbeste aldiz argudiatutako lohiz betetako hiri lurzorua panazea modura saltzea berrikusi beharreko mito bat da; izan ere, hirigunean oso saturatutako guneean aplikatu behar dira dentsitatearen konpentsaziozko irizpideak...Bestetik, oinezkoak, bizikletak, jendea integratzeko antolaketa bat egitea funtsezkoa da udalerrian banatutako ekipamendu orokorren artean, erabiltzaileek benetan era zabalean partekatu ahal ditzaten; ez dezagun guztion zergekin gutxi batzuk erabil ditzaketen eremu bihurtu...

107. Biztanleen bilakaera kontuan hartzea ekipamendu berriak prestatu edo aurreikusteko, beharrezkoak badira.

Biztanleen gaineko proiektzioak kontuan hartu beharko ziren oinarrizko ekipamenduen beharrak planifikatzeko orduan. Gainera, biztanleria osatzen duten taldeen beharrak aintzat hartu behar dira (sexu, adin, bizitzeko gune eta abarren arabera).

108. Ekipamenduek oinezkoen eta bizikleten lotura ona izatea, eta bizikletak eta beste ibilgailu batzuk aparkatzeko lekuak jartzea.

Ekipamendu publikoen artean, beharrezkoa da oinezko, bizikleta eta beste ibilgailu batzuetarako loturak izatea.

Bidegorrien sareak ekipamendu publikoak bereizita batu behar ditu, haietan guztietan bizikletak aparkatzeko lekua jarri behar da eta, estalita badaude, are hobeto.

109. Ekipamenduetatik gertu garraio publikoko geltokiak egon behar dira.

Ekipamendu publikoek garraio publikoko geltokiak gertu samar izan behar dituzte (metroa, autobusa, bizikleten zerbitzu publikoa...).

110. Auzo bakoitzerako kultur ekipamendu bat prestatzea, elkarreterako erabilera anitzeko estalitako toki bat gutxienez.

Kulturaren gaia kezkarria da, eta ezin da jakin GetxoAntzokia irekitzen denean zer gertatuko den.

Garrantzitsutzat jotzen dugu auzo bakoitzak bere kultur aukera izatea, auzo bakoitzak erabilera anitzeko estalitako toki bat izan beharko zuela uste dugu elkarreterako bertan era askotako ekintzak egin ahal ditzaten; aterpe soil bat, elkarreterako beraiek kudeatutako toki bat, azokak, bilerak, jarduerak eta beste ekimen batzuk bertan egin ahal izateko.

Gaur egun, bi orduko ekintza erraz bat egiteko kale zati bat okupatzeak burokrasia astuna eskatzen du, eta askotan baimena bi aste geroago iristen da.

Jende-kopuru handia batzen duten ekintzek modu batzuk eskatzen dutela ulertzen dugu, baina gauza txikiei buruz ari gara, auzoko eta auzorako ekintzez.

112. Irakaskuntzako ekipamenduak prestatzea berdeguneekin.

Ikastetxe gehiago eraikitzen badira, berdeguneak izan behar dituzte.

Azterketa batzuen arabera, berdeguneetatik gertu ikasten duten haurrek gehiago errespetatzen dute, hobeto prestatuta daude.

113. Enpresei laguntzeko ekipamenduak sortzea.

Haztegietatik ateratako enpresei edo jarduera batekin denbora luzez jarraitzen duen enpresei espazioa emateko aukera eskaintzea.

114. Osasun eta laguntzeko ekipamenduak batzuk besteengatik hurbil prestatzea.

Komenigarria izango zen zerbitzu osagarriak ematen diren ekipamenduak, gizarte eta osasuneko zerbitzuak adibidez, batzuen eta besteengatik hurbil kokatzea zerbitzu horiek ematen dituzten eragileen arteko koordinazioa eta eraginkortasuna sustatzeko.

115. Getxoko elkarten jardueren konexio, elkarrekintza eta ezagutzarako aukera ematea.

Elkarte eta klubak daude Getxon. Beren jardueren konexio, elkarrekintza eta ezagutzarako aukera ematea.

116. Gazteen aisialdirako aukerak eskaintzea, eta gazteen lonjak arautzea.

Gazteak eta alkohola Espainia mailako gai bat da, baina toki-mailan zerbait egiteko aukera aztertu beharko zen. Enpresako sareak gazteen lonjen erabilera arautzea eskatzen du behar bezala erabiltzen direla bermatzeko; izan ere, bestela, merkataritzako guneen irudia kaltetzen dute eta, beraz, bezeroak saltoki horietatik uxatzen dituzte.

117. Udalerriko erakunde pribatuekin beren ekipamendu pribatuek erabilera publikoa izan dezaten hitzartzea.

Ekipamendu berriak ez eraikitzeko, ikastetxeetako ekipamendu pribatuen erabilera adostu daiteke (kiroletakoak, kulturalak), erabiltzen ez direnean eta, hala, herritarrei espazioak eskainiko zaizkie.

118. Golf-zelaia ekipamendu modura adieraztea.

119. Alangoko gunean eta lorategi-zonetan kirol-ekipamendu bat antolatzea.

Hiltegia zegoen tokian kirol-ekipamendu bat jartzea komeni zela adostu genuen eta, gainerako espazioan, lorategi-zonak.

120. Andramariko kirol-instalazioak zabaltzea kiroldegiaren alboan.

Igerileku bat eta gutxieneko kirol-zerbitzu batzuk Santa Maria de Guechoko probalekuan.

121. AndraMariko hiri lurzoruetako ekipamenduen eskaintza zabaltzea.

Ekipamenduak ezinbestekoak dira herritarren ongizaterako, auzo guztietan izan behar dira, baita ANDRA MARIN ere, Santa Maria Urbanoko erdiguneetako esparruetan "behar bezala arautu ostean".

122. Galeako gotorlekuari erabileraren bat ematea.

Duela urte batzuk taberna bat zegoen. Ostalaritzako edozein proiektutarako oso toki polita da.

123. Portuzarreko betelaneko lekuari erabileraren bat ematea.

124. Xake plazan udako zinema programatzea.

Zinema jar dezatela udan Xake plazan, baina karparik gabe, mesedez.

125. Villamonteko kultur etxea mantentzea, auzo-etxe izateko egokituz.

KulturEtxea eta GetxoAntzokia funtzionamenduan izan arren, Villamonteko egungo kultur etxearekin jarraitzea, haren egitura funtzio anitzeko auzo-etxe bihurtzeko egokituz: elkarteen bilerak, herritar-mugimenduen bilerak, auzoko jarduerak...

XVII. Kultur Ondarea.

126. Eraikitako kultur ondarea balioan jarri eta publizitatzea.

Kultur ondareari dagokionez: balioan jarri eta publizitatzea, Areetako Kaiko eraikin garrantzitsuekin egin den moduan.

127. Eraikitako kultur ondarea eta paisaiak nahiz historiak osatutako kultur ondarea balioan jartzea.

Kultur ondarea ez dira eraikinak besterik gabe, baizik eta paisaia da gure altxor handiena, bertan daude eraikin horietako asko, eta horixe da, hain zuzen, babestu behar duguna ere! Kultur paisaia da gaur egun gehien baloratzen dena, eta gure ongizateari eta hobekuntza ekonomikoari gehien lagun diezaiekeena!

KULTUR PAISAIK galdu ezin den gure kultura eta historia hartzen ditu barnean; gure ongizatean ahalmen oso garrantzitsua du, bai eta gure udalak duen ahalmenean ere ekosistemen zerbitzuen ekoizle modura, baina baita galdu ezin dugun zerbitzu ekonomikoen ekoizle modura ere.

128. Baserriak balioan jarri eta babestea.

1800 . urtea baino lehenagoko baserriak balioan jartzea, haiek seinaleztatzea, adibidez, eta guk, herritarrok, jakitea babestu egin behar direla.

129. Udalerriko toponimiaren aberastasuna seinaleekin balioan jartzea.

Getxoko auzoak (Algorta, Neguri, Aiboa, Romo...) eta landaguneak (Arteaga, Saratxaga, Bolua, Moreaga...) balioan jartzeko ahalegina egin behar dugu, seinaleztatu, jendeak ezagutu ditzan, eta gure Getxoren toponimiaren aberastasunaz harro senti daitezen.

130. Getxon dugun kultur paisaiaren aldeko apustua egitea, Portuzarra edo AndraMari, esaterako.

Errealitate horiek ezin dira galdu kultur alde batetik ikusita, eta baita haiek duten ahalmen ekonomikoagatik ikusita ere. Sistema horiek mantendu, berreskuratu eta hobetzea Andra Mariko guneko kultur ondarearen berreskuratzeari lotuta, hau da, hondatzen utzi diren baserri guztiak, udalerrikoa den historia bat gordetzen dutenak, eta kultur eskaintza oso garrantzitsua dena. Gure paisaian gordetzen diren era horretako kultur ezagutzak (gastronomikoa, historikoa...) egungo turismoak gehien eskatzen duena da eta, krisi-garaian izan arren, ez du krisirik jasan, alderantziz, hazten ari da (Turismo, Osasun eta Ingurumen ikastaroan ateratako ondorioak).

XVIII. Etxebizitzari buruz.

131. Getxoko lurzoruaren prezio garestia udal arazo larria da.

Getxoko lurzoruaren prezio garestia aspalditik hitz egiten ari garen gaia da, eta egoera horrek zer-nolako ondorio txarrak eragiten dituen etxebizitzan nahiz merkataritza-jardueran.

132. Dauden baliabideak merkatura ateratzea.

Udalerrian eraikinetan inbertitutako baliabide guztiak ezin dira galdu. Muga bat dago. Baliabideak egon badaude, baina merkatura atera behar dira.

133. Egikaritze unitateetan berdeguneak proposatzea.

Egikaritze unitate guztietan berdegune gehiago jartzea proposatzen dugu. Funtsezkoa herritarren osasunerako. Egikaritze unitateetan honako hauek egitea ere oso garrantzitsua izango zen: parkeak, hiri-baratzak... Azpiegitura berdeak izenekoak. Europara heltzen ari dena, hain zuzen. Herritarrei ongizate eta bizi-kalitate handiagoa emango dien ingurumena.

134. Etxebizitza berrien eskaintzak era askotako familientzat izan behar du.

Etxebizitzen tamainari dagokionez, eskaerei beraiei lotuta dago. Egindako inkesta: iritzien % 90 1 edo 2 pertsonarentzat ateratzen ziren. Horrek esan nahi du eskaintzak malgua izan beharko zuela.

135. Etxebizitza txikiak eta zerbitzu komunek osatutako etxebizitza kolektiboko eraikinen eraikuntza sustatzea.

XIX. Beste zenbait ideia /hausnarketa

136. Udalak beste administrazio batzuen eta haien proiektuen eskumenei buruzko gardentasuna hobetu behar du.

Portuko eskumenak Estatuarenak dira, baina udalak udalerrian jarduketak egiten dituzten beste administrazio batzuetako eskumenei buruzko informazioa eman behar du; Getxoko herritarren aldeko erabakietan eragina izan behar du.

137. Udalak gardentasuna hobetu eta portuko nahiz aireportuko segurtasunari eta kutsadura akustiko nahiz ingurumenekoari buruzko informazio gehiago eman behar du, ingurumenarekiko eragin kaltegarriari buruz...

Honako hauei buruzko gardentasuna hobetzea: kutsadura akustikoa eta ingurumenekoa, lurreratzeko ibilbideak, aireeratzea eta segurtasuneko inplikazioak, kruzeroen portuaren eragina, Getxoko itsasertzeko drainatzeen eragina, portuak itsasertza zenbat kutsatu duen... Dena den, kontrolatzen bada, gardentasun-politika ona izango zen, herritarrak jakin dezan udalerriko azpiegitura horien kostu-irabazi baldintzetan oinarritutako harremana zein den...

138. Errotatxu poligonoan dagoen Emausen mugikortasun-zentroa ez da ekipamendu publiko bat?

139. Santa Eugeniak Getxoko elkarteei lokalak emango al dizkie?

140. GetxoAntzokiak eta bertako obrek auzoa zokoratuta utzi dute. Auzotar horientzat zerbait pentsatu al da?

141. Zer tratamendu eman behar zaie udalerriko merkataritza, enpresa eta ostalaritzako guneei?

Aipatutako guneak mugatu nahi dira bertan kale berriak sartu gabe, ala haiek zabaldu nahi dira? Eta aipatutako guneetan lokalak etxebizitza modura erabiltzeko debekuari eutsiko zaio?

XX. Aukerei buruz.

142. Etxebizitza berririk egiteko beharrik ez dago.

Etxebizitza-beharra dagoela esaten da; ez nago ados. Eraiki beharko balitz, publikoa beharko luke, baina garrantzitsuena hutsik dagoena ateratzea da. Merkatura ateratzeko moduak daude.

143. Getxok zer ahalmen duen ikustea, eta hura baliatzea; hala, Getxoren alde guztiak hobetuko ziren, baina ez gauden lekura eraman gaituen ereduari jarraiki.

Getxon dagoen etxebizitza-kopuruak ez du biztanle-kopurua handitu eta, beraz, zergatik nahi ditugu etxe gehiago? Ez du zentzurik. Getxok baliabide asko du eraikuntzetan, eta haiek erabiltzen eraginkorra izan behar du, hau da, dituenak erabili behar ditu, ez gehiago eta, ahal badu, murriztu. Zergatik? Ezin delako eraikitzen segi; izan ere, gure ingurunea hondatu baino ez du egiten eta, horrekin, gure ongizatea; hura ikusteko era aldatu behar da, eta zer ahalmen-maila (handia) duen ikusi, halaber: kultur paisaia, gastronomikoa, biodibertsitatea, turismoa... ahalmen hori duten guneak ongi kudeatuz bakarrik eta haiek handituz (asko daude), eta hiriguneko berdegune-kopurua handitu (ekologikoki funtzionalak) joan-etorriak murrizteko eta auzoetako harreman sozialak errazteko...

144. Hiri lurzoruan egindako garapenetan ingurukoarekiko dentsitatea murriztea.

Integratutako jarduketa berriek normalean izan ohi den inguruko dentsitatea konpentsatu behar dute (eta hori hiriguneko erdi-mailako dentsitatea nahi dena baino handiagoa delako) eta, beraz, oro har jadanik eraikitakoak baino altuera txikiagoan egikaritu behar dira.

145. Urbanizatzen den lursail oro material iragazkorrekin egingo da; horrenbestez, drainatze iraunkorra bermatuko dute uholdeak izateko arriskuko guneen egoera okertu ez dadin.

146. Lantaldeak aurreko faseetan proposatutako dentsitatearen adierazpena berrikustea, erdi-mailako dentsitatea proposatzen baitu, eta ez erdi-mailako dentsitate babestea txikia eta oso handia baztertuz.

Zenbait dokumentutan eta bereziki Lantaldeak erabakitako irizpideak izenekoan (aurretiazko faseetan eta aurrerapenean), zuzena EZ den irizpide bat ezartzen da –Lantaldeak hiri lurzorurako nahiz urbanizagarriko dentsitate egokitzat jotzen duena–. Erdi-mailako dentsitate bat proposatzeaz hitz egiten da, txikiak eta oso handiak baztertuz. Eta errealitateak dio Lantaldearen irizpide nagusia erdi-mailako dentsitatea babestea izan zela, baina dentsitate handiak eta oso txikiak baztertuz. Antzekoa dirudi, baina ez da hala. Aitzitik, oso garrantzitsua da; izan ere, Getxoko hiri lurzoruaren egungo dentsitate egokia baino handiagoa DENEZ DAGOENKO (50-75 etxeb/ha baino gehiago), BERRIA den hirigintzako jarduketa OROK batez bestekoa konpentsatzera jo behar du batez besteko orokorra egokira gerturatzeko (ertaina edo erdi-mailakoa, baina beheranzko joerarekin). Gai hori azaltzen dudan bigarren aldia da, eta zuzenduta egon beharko zen, zenbakiak burugogorrek baitira eta gordeta baitaude.

147. Egikaritu beharreko etxebizitzak hiri lurzoruaren barnean egitea, eta espazio libreak lehenetsiko dira. Lurzoruaren lagapenak ere kontuan hartuko dira beste ekipamendu publiko batzuetarako, bai eta isolatutako jarduketak nahiz hutsik dauden etxebizitzak ere.

148. Ez da jarduera ekonomikoen gune bat egin behar Martiturrin edo beste lurzoru urbanizagarri batzuetan.

Etorkizuneko hiri antolamendurako plan orokorraren plangintzatik kanpo geratzen bada ere, ez zen ezer gertatuko, ondoren ere prestatu ahalko baitzen hiri antolamendurako plan orokorra aldatuz. Horri dagokionez orain zerbait egin beharko bazen, Iturribarrin izan ahalko luke kokalekua. Martituri ezin da eraldatu honako arrazoi hauengatik: 1) Berriki sortutako auzotarren mugimenduari ez zaio bizkarra eman behar; erantzun bat eman behar zaie, eta babesten dutenarekin bat gatoz. 2) Ibarbengoako geltokia ez da justifikatu behar. 3) Martiturrin industrialde bat jartzeak ez du Getxo berpiztuko.

149. T1 aukerari dagokionez (hiri lurzorua lohiz bete + lurzoru urbanizagarrian jarduera ekonomikoen 8/12 hektarea, eta bertan 2.439 etxebizitza berri izango ziren hiri lurzorian), etxebizitza berrien kopuruari eutsi baina hiri lurzorukoak murrizten dituen aldagai bat proposatu ahalko zen, lurzoru urbanizagarrian bizitoki-azalera emanez.

A1 eta A2 aukeren aldaera bat egitea, hiri lurzoruaren zati bat lohiz betetzea, dentsitate handia izango duena, gainera, 2.439 etxebizitza berri eskaintzeko. A1/A2ren aukera berberak edo antzekoak falta dira lurzoru urbanizagarriari dagokionez, baina hiri lurzorua lohiz bete gabe (lohi gehiegi).

150. Bizitoki-ahalmena hiri lurzorian nahiz urbanizagarrian zenbatzeko, talde teknikoak proposatutako batez bestekoak baino azalera txikiagoko batez besteko etxebizitzak kalkulatu behar dira.

Lohiz betetzearen azterketa egiteko orduan, tamaina kontuan hartu behar da. Handiegiak direla uste dugu.

Familia-tamaina murrizten da, baina ez du proportzionalki jarraituko. Familia-tamaina murrizten bada, etxebizitzaren tamaina ere murriztu egin behar dela irizten dugu.

151. Hiri lurzoruko bizitoki-eskaintzaren proposamen teknikoa % 5 edo % 10 murriztea.

Etxebizitza-kopurua % 5 edo % 10 inguru murriztea, oro har, altuerari eutsiz. Horrek zenbait azalera libre utziko zituen. Etxebizitza gutxiago eta altuerari eutsiz, espazio libreak ahal den neurrian handitzen saiatu: ekipamenduetan eta horniduretan.

152. Hiri lurzoruko bizitoki-ahalmena zenbatzeko jarduketa isolatuak kontuan hartu behar dira, hornidurakoak, hutsik dauden etxebizitzak, beste erabilera batzuk etxebizitza bihurtzea...

Hiri lurzorua integratutako jarduketan azterketan ez dela agortzen uste dugu; jarraian, lurzoru urbanizagarriaren aukerak azalduko dituzue (lohiz betetzeko gaitasuna: bizitokirako, jarduera ekonomikoetarako...). Erreferentziazko dokumentuak berak dio kontuan hartu behar direla hutsik dauden etxebizitzak, isolatutakoak, hornidurazkoak... eta sustatzaileentzat eta abar harribitxiak dira. Irteerako lehenengo lerroan zeudenak izango ziren.

Eremu libreen hornidura hornidurako jarduketan izandako tratamenduari lotuta dago, jarduketa integratuetan etxebizitza gutxiago ateratzeko aukera izanik; aldiz, hiri lurzoru guztian jarduketa integratuak ez direla murrizten uste dugu, isolatutakoak aintzat hartu behar direla, hornidurazkoak, hutsak, beste erabilera batzuek eraikuntzan egindako okupazioa...

153. Eraikitzen diren etxebizitza publiko berri guztiak alokairu sozialekoak izan daitezela.

154. Santa Mariako hiri lurzoruek hiri lurzoru izaten jarraitzea etorkizuneko hiri antolamendurako plan orokorrerako (proposatutako aukera guztiei aplikatu beharreko irizpide orokor gisa): egungo eraikigarritasuna legeak ezarritako gutxienera igoz eta, hala, erdiguneak arautu ahalko dira eta ekipamenduz hornitu.

Santa Maria Urbano izeneko gunea, duela hamabost urtetik hirigune batzuez osatuta dago, hau da, horretarako beharrezkoak diren zerbitzuekin eta, beraz, lurzoru-mota horretan segi behar dute; elkartearen proposamenak erdigune horietan oso gertuko egoeran dauden zenbait etxebizitza sartzeko eskatzen du, jadanik existitzen diren dozena bat baino gutxiagoko etxebizitzak osatzen dutenak.

Proposatutako bigarren gaia hiri lurzoru hori zabaltzea da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak (ekainaren 30ekoa) adierazitako gutxienera eraikigarritasunera heltzeko asmoarekin; haren helburua etxebizitzak eraikitzeaz gain, aldi berean, ez dituzten hornidurak egiteko aukera ematea da, eraikigarritasun horren % 60 etxebizitzetarako baliatzea eta % 40 tokiko horniduretarako eta hornidura orokorretarako, sakabanatze-arazoak desagerraraziz. 300 eta 400 etxebizitza berri inguru eraikiko ziren; zentzuzko zifra dirudi, udalerriko aurreikuspen orokorrekin bateragarriak. Jakina, plangintza hori artisau eran eta zehaztasun handiz idatzi beharreko bizpahiru berritze-planen garapenean jaso behar da, bertako egoiliarren bizi-baldintzak eta inguruko ingurumen-baldintzak hobetzeko.

155. Maidaganeko lurperatzearen alboan aurreikusitako babestutako etxebizitzek alokairukoak izan beharko zuten.

Lurzoru publikokoa izan beharko zuen beste egikaritze unitate bat dago Getxoko lehengo geltokiaren alboan, eta han dago lurperatuta. Babestutako etxebizitzak egitea proposatuta daude bertan. Alokairuan badira, hobe; hala, gazteentzat eskuragarriagoak geratuko ziren.

FIII.2.5.1.2. Lantaldea utzi duten kideen komunikatua

"Hemen sinatzen dugun hogeit bat partikular eta elkartekideok, Getxoko PGOU-HAPO berrikusteko lantaldean parte hartu dugunok, amets egitera gonbidatu gintuzten, Joseba Arregui hirigintza zinegotziaren hitzetan. Horrela, sinetsi genuen posible zela parte hartzea eta gure ekarpenak aintzat hartuak izatea, hainbat ikuspuntutatik eginak horiek ere, gure herria datozen urteetarako planifikatzea bezalako zeregin garrantzitsuan.

Prozesu horrek zirauen bitartean, gutariko batzuk zalantzak izan genituen ikusi genuenean erredakzio-taldea asko arduratzen zela milaka etxebizitza egin nahi zituelako, eta horrela alde aurretik pentsatutako herri eredia bultzatzen ari zelako. Hala ere, aurrera jarraitu genuen, batzuk geroz eta arduratuago, eta beste batzuk parte hartzea beharrezkoa dela sinetsita, nahiz eta azken hau oso zaila egiten zen, teknizismoa dela eta.

Orain egoera tamalgarri batera heldu gara. Ez ditugu arrazoiak ezagutzen, baina partikularrek eta elkarteek defendatutako hainbat proposamen atzera bota ditu erredakzio-taldeak, Lantaldearen lana bukatutzat eman nahi den une berean. Gure atsekabea ezin handiagoa da, izan nahi ez genituen zalantzak berretsi baititugu. Geroz eta joera markatuagoa duen prozesu honek iruzur egin digu eta, beraz, ez dugu nahi gure izena bertan agertzea, ez baitugu justifikatu nahi erredakzio-taldeak eta Udalak alde aurretik pentsatutako plana.

Lantaldeak bilerak egin dituen bitartean, Getxon hainbat hiri-egitasmo burutu dira, bere iritzia eta ardurak plazaratuko zituela uste zuen jendea kontutan hartu gabe. Era berean, ez zaigu bidezkoa iruditzen Getxoko herriak ezer ezin erabakitzea gure Lantaldeak proposatzen duenaren inguruan, gure herriaren etorkizuna baitugu mahai gainean eta, batik bat, Lantaldearentzat berarentzat aukera batzuk baztertu egin zaizkionean. Badakigu hemendik 15 urterako hiri-planteamenduaz ari garenean hainbat elementuk hartzen dutela parte: aurreko esaldi hau kendu.

Horrenbestez, eta nahigabe handiaz, Lantaldetik aldentuko gara. Ez dugu prozesu honetan parte hartu nahi, gabezia nabarmenak izateaz gain, emaitzetan gure ametsak eta Getxoren etorkizunaz dugun ideia isladatuta ikusten ez ditugulako.”

FIII.3. AURRERAKINEKO AUKEREN DESKRIBAPENA. KALIFIKAZIO OROKORRA

FIII.3.1. SARRERA

Atal hau da plan orokorraren Aurrerakinean proposamenezko eduki gehien duena, bertan Aurrerakinean finkatzen diren zazpi aukeren (T-2' eta T-3' aukera osagarriekin bederatzi) kalifikazio orokorraren edukia jasotzen da.

Aurrerapen honen agirietan jasotzen diren aukeren barruan foroko lan-taldeen lau aukerak eta erredaktore-taldeak proposatutako hiru aukera teknikoak, T-2' eta T-3' aukera osagarriekin barne hartu dira.

FIII.3.2. KALIFIKAZIO OROKORRA EGITEKO JARRAITUTAKO METODO ETA IRIZPIDEAK

FIII.3.2.1. Sarrera

Aurrerakin honen kalifikazio orokorra finkatzeko, metodo konplexu eta interaktibo bat jarraitu da, lehenik eta behin hiri lurzoruaren eta lurzoru urbanizaezinaren sailkapenari erantzuten zaio, urbanizagarriaren sailkapena, aukera ezberdinetan sortutako biztanleria eta jarduera ekonomikoen eboluzioaren zehaztapenen arabera utziz.

Sailkapenaren lehen eskema honen gainean, hiri lurzoruaren kalifikazioa eta azpiegitura sistema orokorren kalifikazio orokorraren alderdi ukaezinenak gainjartzen dira, baita neurri txikiago batean, oinezkoen, bizikleta eta espazio libreen sistema orokorrak ere.

Hiri lurzoruko ekipamendu sistema orokorrak eta ekipamendu eta hirugarren sektoreko zona pribatuak analisi eta zehaztapen egoera berdinean daude. Aipaturiko zona gehienak hiri lurzoru kontsolidatu kategorian aurkitzen dira. Zona pribatuek jarduera integratuetako antolamendu xehatuaz osatzeko aukera dute. Jarraitu den irizpidea, lehendik dauden ekipamendu publiko eta pribatuak, baita hirugarren sektoreko erabilerak mantentzea da.

Ondorioz, hiri lurzoruko ekipamendu sistema orokorren eta ekipamendu eta hirugarren sektoreko zona pribatuen kalifikazioak, aukera gehienetan bat datorren zehaztapen multzo bat ordezkatzeko du.

Zona publiko edo sistema orokorren zona eta zona pribatu ezberdinen kalifikazio lan hau, baita 2/2006 Legeak ezarritako kudeaketa esparruena, hiri lurzorian gehienbat 1/500 eskala zehaztapeneko kartografia baten gainean zehaztasunez egin da eta hiri lurzoruko zati txikiago baten, zein lurzoru urbanizaezinean 1/1000 eskala zehaztapenaz.

Getxoko udalerrri osoan alternatiba guztien kalifikazio orokorraren emaitzak jakinarazteko, lurzoruaren sailkapen ezberdin guztietako zona guztien neurketa egin da, zona pribatu eta publikoen eta haien erabilera bereizgarri ezberdinen arabera antolatuz. Emaitzak xehetasunezko taula batzuetan jaso dira, bere edukia laburpenekin, honela, zuzkidura publikoen azaleraren edukia arabera alternatiba bakoitzaren hirigintza kalitatea neurtu liteke.

Etxebizitza erabilerako hiri lurzorua eta jarduketa integratu bihurtutako egikaritze unitateen antolamenduaren edukia, FIII.3.2.5. "Bizitegi zonen kalifikazio orokorra" atalean garatzen da. Lurzoru urbanizagarrian hala proposatzen duten alternatiben etxebizitza erabilerako edukia ere aipaturiko atalean azaltzen da.

FIII.3.2.2. Azpiegitura sistema orokorrak

Foru bide, trenbide eta portu azpiegitura sistema orokorren kalifikazio orokorra, administrazio eskudunen eguneratutako datuak jasoz eta haien sektore legeria aintzat hartuz finkatu da. Hiri lurzoruko udal bide sistema orokorra, dagokion udal zerbitzuaren arduradun teknikoei kontsulta egin ondoren kalifikatu da. Trafiko dentsitate handiena duten kaleak eta bideen udal sarearen funtzionamendu egoki baterako ezinbestekoak direnak jasotzen dira.

Udal bide sistema orokor gisa kalifikatutako udaleko kale hauek, Leber ingenieritza enpresak eginiko mugikortasun azterketan analizatu dira, Aurrerakin honetako zazpi alternatiben etxebizitza, hirugarren sektoreko eta ekipamendu erabileren azalera jasoz.

Metodo bera erabili da hiri instalazioen sistema orokorren zatire.

Ondoren azpiegiturak eta ekipamenduak mugatzeko jarraitutako irizpide edo moduak azalaz deskribatzen dira:

Jabari publiko hidraulikoa

Ondorengo irizpideekin definitzen da:

- ✓ Ohizko etorbideak gaituz kartografiaturiko ezpona buruetatik mugatuz: Kanelu, Larranazubi edo Bolue errekaetan.
- ✓ Urbanizatutako tartetan hormen estradosean edo harri-lubetan desberdintzen badira, edo bigarren hau bakarrik kartografiatuta dagoen kasuetan intradosetik 60 zm-tara.
- ✓ Errekaganen exekuzioan dauden tartetan, Faduran aurreikusitako tartean edo Zubilleta eta Berango artean proiektaturiko tartean, egitura nagusi bezala definitutakotik edo diseinaturiko oinezkoen bidetik marrazten da.
- ✓ Lurrazpiko tartetan (Lamiako-Romo tartea, Cristobal Valdes azpiko tartea, Cervantes eta Avanzada azpiko tartea eta Iزارo kaleko tartea) marrazketa gutxi gutxi gorabeherakoa da, ez baitago kartografiarik edota obra bukaerako jasotzerik, hala ere, udalarekin, E.T.S.-rekin edo URA-rekin egiaztatzen dira.

Portu jabari publikoa

Portu jabari publikoaren zehaztapena, Portuko Agintaritzak udalari emandako azken dokumentuaren arabera Aurrerakinean finkatzen da. Portu erabilerarako espazioen mugaketa izeneko "DEUP" dokumentu honek, portu araudi bateginarekin ados, portuaren zerbitzu eremua definitzen du eta azpi-kategoriatan

banatzen du. Azken hauetatik Aurrerakinaren dokumentazio grafikoan azpiegitura erabilera eta itsas seinalizazio erabilera bakarrak jasotzen dira, hau da, portu erabilera garbia dutenak.

DEUP dokumentuak ez du estatuko Administrazioaren behin betiko onarpena jaso, hau dela eta, Abrarako DEUP onartzen bada, definizio urbanistikoa finkatuko da eta hurrengo fasean gainerako azpiegiturekin jasoko da.

Trenbide jabari publikoa

Eusko Trenbide Sareak emandako informazioa jasotzen da, 90. hamarkadako trenbide mugaketak eta ondorengo desjabetzeak. Aztertu ondoren, trenbide sistema orokorra mugatzen da, azpiegituren mugak kartografiatuz, honela, zenbait mugaketa kalifikaziotik kanpo gelditzen dira. Aipatzekoa da, Gobela errearen lurrazpiko tartetan bezala, grafikoki zehaztasunez adierazteko kartografiarik ez dagoenez, lurrazpiko geltoki eta trenbide tarteen kalifikazioaren kokapena gutxi gorabeherakoa dela.

Foru bideen jabari publikoa

Bizkaiko Foru Aldundiak definituriko bide azalerak, foru bide garraio sistema orokor gisa kalifikatzen dena, aipaturiko azpiegitura eraikitzeke desjabetutako lurzorua da, gaur egun azpiegiturek okupatutakoak eta gainerakoak ere. Herri Lan Sailak UTM datuekin bidalitako mugarri guztiak hartu ziren eta dokumentazio grafikoan txertatu ziren. Mugarri horiek ez dira justifikazio barik aldatu, baizik eta gauzatutakoa eta kartografian adierazitakoa proiektuarekin uztartzeko helburuarekin.

FIII.3.2.3. Espazio libreen sistema orokorrak. Oinezkoen sistema orokorrak eta bidegorriak

Aurretik aipaturiko bide azpiegitura sistema orokorren kalifikazio zehaztapenak, foroan finkaturiko gidalerroak aintzat hartuz, bidegorri eta oinezkoen ibilbide sare trinko bat proposatuz osatu dira.

Oinezkoen eta bizikleta bide edo bidegorrien azpiegitura sistema orokorren sarea, alternatiba teknikoetan eta lantaldeen alternatibetan berdintsua da. Hauen zehaztapena, egungo egoera eta foroko lantaldeek eztabaidatutako handitze proposamenak jasoz finkatu da.

Berdina adierazi beharko litzateke, bide eta oinezkoen sistema orokorrekin tarte bateratuetan gainjarritako grafismo berezi batekin marrazten diren oinezkoen sistema orokor eta bidegorrien kasuan.

Espazio libreen eta oinezkoen sistema orokorrak, egun erabilera hori duten eta jabari publikoaren barne dauden espazioen azterketa zehatz bat egin ondoren kalifikatu dira, hauez gain, haien ezaugarriengatik plan orokorren lanketan eta kudeaketan erantsi daitezkeen espazioak ere kalifikatu dira.

Bidegorriak edo oinezkoen bideak proposatzeko, lehenik daudenetan oinarrituz, bidegorrien eta oinezkoen sare bat sortzeko funtsezko ideiatik abiatu gara, era berean, ekipamenduen kokapena eta udalaren orografia analizatzen da, funtzionaltasuna hobetzeko asmoz, oinarritzko ibilbideen diseinu faktore bezala edukitzeko. Hiriguneen eta ekipamenduen artean sestra kota ezberdinak edota hiriguneetan dauden espazio publiko urriak direla eta, nahiz eta segurtasun gehien bide motak, oinezkoak eta bideak bananduz lor daitekeen,

ezinezkoa da sare bakoitzarentzat zirkuitu itxi bat gauzatzea, batez ere hiri lurzoruan, garraio mota denak garapen iragazgaitz eta guztiz banandua izanik.

Bidegorrien ibilbide guztiak zailtasun txikiena bilatuz proposatzen dira, hala ere, ibilbide batzuk igotzeko zailak dira, hau dela eta beheranzko noranzkoa ematen zaie. Kasu gehienetan moten arteko bereizketa aukeratzen da, arazoak dituzten tartetean noranzkoen banaketa egokia dela kontsideratzen da, beste batzuetan oinezkoekin bizikidetzeta eta azkenik ibilgailuekin bizikidetzeta, azken hauen abiadura motelduz arazorik sortu gabe.

Azkenik, adin guztietako biztanleen artean erabilera sustatzeko estrategia onena trukeak ahalbidetzea da eta puntu jakin batzuk bide mota ezberdinak kontzentratuz sendotzea edota oinezkoak eta bidegorriak konektatuz. Portu Zaharra, Urkijo Baso, Alango edo Bidezabalen bezala malda handia duten eremuetan, konexio hau ibilgailuekin eta eskailera mekanikoekin egitea proposatzen da.

Auzo elkarteak edo Lantaldeak adierazitakoaren arabera, Portu Zaharrean igogailu bat jartzea proposatzen da.

Espazio libreei dagokienez, kasu gehienetan herritarren partaidetzarako foroko lantalde ezberdinekin burututako lan saioetan planteaturiko iradokizunak jaso dira, talde idazleak lanari ekiteko hasieran ezarritako lehenengo bertsioari ñabardurak eta zuzenketak aplikatuz.

Espazio librearen sistema orokorren lurzoruen kalifikazioa, L1 alternatibaren ezberdina da, guztien oinarri diren lehendik daudenez gain, exekutatu gabeko jarduketa integratu eta eraiki gabeko etxebizitza orube guztien azalera espazio librearen sistema orokor gisa kalifikatzen dira. Irizpide hau, izaera murriztuago batekin, jarduketa integratu jakin batzuentzat L2 bertsioan ere aplikatzen da.

Talde idazlearen eta lantaldeen hiri lurzoruko espazio librearen sistema orokor zuzkidurak hobetzeko irizpidea aintzat hartuz, O.1 eta O.2 planoetan zehaztasunez definituriko espazio librearen sistema orokor gisa kalifikatutako lurzoruez gain, hiri lurzoruko etxebizitza jarduketa integratu guztietako fitxa guztietako edukian, xehetasunezko antolamenduan, etxebizitza erabilerako 25 m² sabai bakoitzeko, jarduketaren barnean espazio librearen sistema orokorretarako 5 m² lurzoru aurreikustearen premia definitu da.

Irizpide horiek, etorkizunean xehetasunezko antolamendua exekutatzen denean eraikin desegokiak ekidinez betetzeko, sestra gaineko eraikigarritasuna, zuzkiduren azalera, partzela pribatuen okupazioa eta eraikinen solairu kopurua aztertzen duen euskarri tekniko interaktibo baten bidez dentsitate saio ezberdinak egin dira.

Azterketa honen helburua dentsitate egoki batzuk lortzea da, eta zehatzago, ingurunean lehendik dauden eraikinen altueren antzerako emaitzak izango dituztela ziurtatzea.

L1, L2, L3, L4, T1 eta T3 alternatibetan Portu Zaharreko lurzorua espazio librearen sistema orokor gisa kalifikatu dira eta T2 alternatibaren aldaketa bat proposatzen da, ekipamendu sistema orokor gisa kalifikatuz, bere hirigintza etorkizunari buruzko eztabaida irekitzeko helburuarekin.

T2 eta T3 alternatibetan eta haien T2' eta T3' aldaeretan, lurzoru urbanizagarriko etxebizitza sektoreetan, hirigintzari eta lurzoruari buruzko 2/2006 Legeak finkatutako espazio libreen sistema orokorren azalera ratioak baino handiagoak ezarri dira, T2 alternatibean 8 m² eta T3 alternatibean 11 m² etxebizitza erabilerako 25 m² sabai bakoitzeko.

T2-T2' eta T3-T3' alternatibetan, proposaturiko espazio libreen sistema orokorren lurren zati bat Gobela ibaiaren goi ibarrean uholde arriskua duten eremuen azaleretan kokatu da, jabari publikoarentzat kostu handi barik eskuratu ondoren, egungo Gobela ibaiaren ibilgua handitzeko aurreikusitako azalerekin batera, naturaren gozamina eta bere balioen zaintza uztartuz espazio libreen erabilera jasangarri bat ahalbidetzeko

FIII.3.2.4. Ekipamendu sistema orokorrak

Ekipamendu sistema orokorretara zuzendutako lurren kalifikazioa, lehendik dauden ekipamendu publikoak jasoz zehaztasunez finkatu da. Titulartasun pribatuko ekipamenduak jasotzen dituzten ekipamendu zonen kalifikazioa irizpide berdinarekin osatu da.

Jabari publikoko lurzoruak direnean eta erabilera bereizgarri eta nagusiak izaera publikoa duenean, ekipamendu publiko gisa adierazten dira.

Bestalde ekipamendu pribatuak definitzeko, informazio iturri desberdinak erabili dira, baina batez ere eraikinen erabilerari buruzko katastroaren informazioa, honela, erabilera bereizgarri gisa zerbitzu bat duten partzelak ekipamendu pribatu gisa kalifikatzen dira.

Lurzoru urbanizagarriko jarduera ekonomiko eta etxebizitza sektoreetako kalifikazio orokorreko irizpideetan, zuzkidurazko bizitokientzako bideratutako zuzkiduren azalera, hirigintzari eta lurzoruari buruzko 2/2006 Legeak finkatutakoaren arabera ezarri da, etxebizitza erabilerako 10 m² sabai bakoitzeko 2,5 m² zuzkidura lurzoru.

Nahiz eta indarrean dagoen legedian aurreikusita ez egon, aurretik aipaturikoaz gain, ekipamendu sistema orokorretarako azalera batzuk finkatzea aurreikusten da, hauen azalera ezberdina izango da sektorearen arabera.

Getxoko udalerrian hirugarren sektoreko eta ekipamendu erabileren hazkunde bat ahalbidetzeko dagoen premia aintzat hartuz, T2-T2' eta T3-T3' alternatibetan proposatzen diren etxebizitza sektoreak, hirugarren sektoreko eta ekipamendu erabileren sabai azaleraren ehunekoa, etxebizitza erabilerarekiko %15 baino balio altuagoetan finkatuz planteatzen dira. Bilbo Metropolitanarreko LZP-ren araudiak aipaturiko balioa eraikigarritasun osoaren %15-n finkatzen du.

Sektore hauetan aipaturiko ehuneko minimoa bikoiztu egiten da, etxebizitza – hirugarren sektoreko erabilera sektore mistoak sortuz. Azken hauek, jarduera ekonomikoetako sektoreei dagozkien hirugarren sektoreko erabilerak sendotzen dituzte.

Aipatutakoaz gain, T2-T2' eta T3-T3' alternatibetako sektoreetan sartutako ekipamendu sistema orokorren aurreikuspenak, espazio libre, zuzkidurazko bizitegiak, ur sistema orokorra eta azken honen ertzeko

oinezkoen sistema orokorraren azalerarekin batera, etxebizitza zonen azaleraren %50 dira. Ondorioz, etxebizitza sektore bakoitzean, irabazte-xedezko baliabidetarako zonaren 2 m² bakoitzeko, sistema orokor zona publikoetarako 1 m² eransten da. Honela, espazio libreen eta ekipamendu publiko eta pribatu zuzkidura egokiek, erabilerak nahastuz, hirugarren sektore – ekipamendu izaerako hiri berri baten eredua sortzen da

FIII.3.2.5. Bizitegi zonen kalifikazio orokorra

Ondoren bizitegi kalifikazioa finkatzeko jarraitutako irizpideak deskribatzen dira, horretarako hiri lurzorua eta lurzoru urbanizagarria berezituko ditugu.

✓ Hiri lurzorua

Hasteko, alternatiba guztien azterketa eta definiziorako jarraitutako metodo bezala, hiri lurzoruaren kalifikazio orokorra analizatzen da eta bere bizitegi zonei dagokienez, hiri lurzoru kontsolidatua aztertu eta mugatzen da, eraldaketa hirigintza jarduketak zehazteko estatuko hirigintza legediak finkaturikoaren arabera eraberritze eta hiri birgaitze lanen mende dagoena.

Bizitegi erabilerako hiri lurzoru planoaren oinarri topografiko eta fotogrametrikoaren gain aztertuta eta indarrean dagoen 2001ko plan orokorrak hiri lurzorian mugatutako egikaritze unitateen zehaztapenarekin konbinatuz, Aurrerakin honetako jarduketa integratuak aukeratu dira.

Aurretiko azterketaren dokumentuan jasotako jarduketa integratuen xehetasuneko analisiaren ondorioz, hirigintza lanak eta proposatutako eraikinak exekutututa, haien hirigintza prozesua bukatu duten egikaritze unitateak antzeman dira, baita hirigintza lanak gauzatu arren, eraiki gabeko orubeak dituzten egikaritze unitateak ere.

Egikaritze unitate hauek kontsolidatutako hiri lurzorian sartu dira, aldiz hirigintza prozesua osatu gabe duten 2001ko plan orokorraren banaketa areetako egikaritze unitateak jarduketa integratu bihurtzen dira, hirigintzari eta lurzoruari buruzko 2/2006 Legearen kudeaketa irizpideen arabera.

Jarduketa integratu bilakaturiko egikaritze unitateez gain, jarduketa integratu berri bi erantsi dira, Al Romo eta Al Martikoena. Hauetan, hiri eraberritze eta birgaitze esparru baten sartzeko moduko lurrak antzeman dira eta ezin dira jarduketa isolatu edo zuzkidura jarduketa bidezko partzelak kontsideratu.

Jarduketa integratuen definizioa hala planteaturik, hiri lurzoru sistema orokorren atalean aipatutakoarekin jarraituz, etorkizuneko antolamendu xehatuaren oinarriak finkatzeko Aurrerakin honen proposamenetarako irizpidea zein izan den aipatzea falta da.

Exekuzioan dauden lehengo lurzoru urbanizagarriko sektoreen “jarduketa unitateei” dagokienez, kalifikazio orokorrak eraiki gabeko orubeak bakarrik zehaztu ditu etxebizitza eskaintzan izango duen eragina kalkulatzeko, gainerakoa kontsolidatutako hiri lurzorian sartzen da

Indarrean dagoen HAPO-ren banaketa areen barnean mugatutako egikaritze unitateak aztertuta, bere exekuzioa osatu dutenak, hau da, hirigintzaren exekuzio materialaren azken fasea eginda dutenak

konsolidatutako hiri lurzoruan sartu dira. “Jarduketa unitateetan” bezala urbanizatutako egikaritze unitateetan eraiki gabeko orubeak zehaztu dira.

Haien exekuzioa osatu ez duten egikaritze unitateak, plan orokorraren jarduketa programaren 2. “Hiri lurzoruaren garapena” atalean finkaturiko berdinbanaketa, urbanizazioa eta lizentzia eskatzeko epeak agortu direnez, lege eskakizun berrietara moldatu beharko den kalifikazio orokor berri baten eskura geldituko dira: Hirigintzari eta lurzoruari buruzko 2/2006 Legea eta araudi xedapenak, Ekainaren 3ko 105/2008 Dekretua premiazko neurriei buruzkoa, Uztailaren 3ko 123/2012 Dekretua hirigintzako estandarrei buruzkoa eta Aurrerakin honen hirigintza irizpideak

Exekuzioa osatu ez duten 2001ko plan orokorraren egikaritze unitateen lurren kalifikazioa, L1 eta L2 alternatibetan modu banakatuan egiten da, osotasunean edo partzialki ekipamendu edota espazio libreen sistema orokor bihurtuz.

L2 alternatibak Mimenagan kokaturiko lehengo 48.1 jarduketa integratuan, jarduera ekonomikoetarako jarduketa integratu txiki bat planteatzen du.

L3, L4, T1, T2-T2' eta T3-T3' alternatibetan ezartzen den hiri lurzoruko bizitegi erabilerako kalifikazio orokorrak, Aurrerakin honen proposamenetan, guztietarako erabilera nagusi lez bizitegi erabilera mantentzea aipatzen da. Era berean, birdentsifikaziorako eta espazio libreak berriro hornitzeko irizpideak hartzen dira, baita aurrez aipaturiko hirigintzari eta lurzoruari buruzko 2/2006 Legearen eta bere araubidearen etxebizitza erregimenak.

✓ **Lurzoru urbanizagarria**

Zazpi aukeretako lurzoru urbanizagarriaren kalifikazioa, aukera bakoitzak finkaturiko jarduera ekonomiko eta bizitegi, etxebizitza erabileren zenbatekoaren arabera desberdintzen da. Ondoren adierazten da.

L1 alternatibak ez du planteatzen zonarik lurzoru urbanizagarrian eta hiri lurzoru bakarrik kalifikatzen du.

L2 alternatibak lurzoru urbanizagarrian jarduera ekonomikoetara bideratutako “hiri perimetroaren” hazkunde txiki bat planteatzen du, Martiturrin 77.988 m² azalerarekin. Jarduera ekonomikoen sektore honetan ez da etxebizitzarik aurreikusten, ezta espazio libreen sistema orokorrik ere.

L3 alternatibak ere lurzoru urbanizagarrian jarduera ekonomikoetara bideratutako “hiri perimetroaren” hazkunde bat planteatzen du, Martiturrin 68.514 m² azalerarekin. Jarduera ekonomikoen sektore honetan 200 etxebizitza berri proposatzen dira, etxebizitza eta enplegu esparru misto bat eratuz.

L3 alternatiba honetan, Martiturrin jarduera ekonomikoen sektorea osatzeko, URA-k landutako ubideratze programaren diseinuaren arabera Gobela ibaiaren ibilguaren handitzeak sortzen duen ur sistema orokorreko 29.482 m²-ko azalera bat atxikitzen zaio. Espazio libreen sistema orokorretara bideratutako 4.937,72 m²-ko azalera bat ere atxikitzen zaio. Honela, atxikitako sistema orokorrak barne, sektorearen azalera osoa 102.933,72 m² da.

L4 alternatibak lurzoru urbanizagarrian jarduera ekonomikoen erabilera duen sektore baten definizioa proposatzen du. Atxikitako sistema orokorrak barne, sektorearen azalera osoa 132.385 m² da.

Bizitegi erabilerako lurzoru urbanizagarriarentzat, 5.000 etxebizitza berri ahalbidetuko dituen garapen bat sortzea proposatzen du, horretarako irabazte-xedezko baliabidetakako zonarako 596.255,96 m²-ko esparru bat proposatzen du eta lurzoru urbanizagarri guztia garatuko duen sektoreari edota sektoreei atxikitako espazio libreen sistema orokorretarako 457.940,66 m²-ko esparru bat.

FIII.3.2.6. Hiri lurzoruko jarduketa integratuen kalifikazio orokorraren hirigintza datuen laburpena

Ondoren jasotzen diren alternatiba bakoitzaren banakako dokumentazioan, datu xehatu hauek zehaztasunez garatzeaz gain, dagozkien ataletan, jarduketa integratuen hirigintza datu nagusien ezaugarriak modu azkarrean eta zehaztasunez adierazteko laburpen taula bat eransten da. Alde batetik L2 alternatiba eta bestetik L3, L4, T1, T2, T2', T3 eta T3' alternatibak, azken hauek hiri lurzoruko bizitegi jarduketa integratuen kalifikazio orokor berdinarekin definitzen dira.

Taula honek etxebizitza jarduketa integratuen guztizko azalera, sistema orokorren zatiaren azalera, etxebizitza eta beste erabileren guztizko eraikigarritasuna eta etxebizitza libre, BOE eta tasatu erregimenen arabera banatutako etxebizitzen guztizko kopuruak ezagutzea ahalbidetzen du.

L3, L4, T1, T2, T2', T3 eta T3' alternatibetako jarduketa integratuen azalera 33,6 hektareakoa da, hauetatik 3,38 hektarea espazio libreen sistema orokorrei dagozkie.

Sestra gaineko eraikigarritasun koefizientea 0,71 m²sabai/m²lurzoru da eta etxebizitza kopurua 2.034 etxebizitza, hauetatik 1.099 erregimen librekoak dira eta 935 babes publikokoak, azken hauetatik 601 BOE dira eta 334 tasatuak.

Ondoren aipaturiko taula biak eransten dira:

T1, T2, T2', T3, T3', L3 ETA L4 AUKERETAKO JARDUKETA INTEGRATUEN KALIFIKAZIO OROKORRAREN HIRIGINTZA-DATUAK															
GETXOKO HAPO-REN AURRERAPENA _ HIRIGINTZA DATUAK	AI ROMO	AI MARTIKOENA	AI 11.1 NEGURI	AI 16.1 ALANGO	AI 16.3 ARKOTXA	AI 24.2 ITURRIBARRI	AI 27.1.2 TRINITARIOS	AI 27.5 SAN NIKOLAS	AI 31.1 MAIDAGAN	AI 31.3 KATEA	AI 36.1 ZUBILLETA	AI 37.1 VENANCIOS	AI 42.1 ORMAZA	AI 48.1 MIMENAGA	GUZTIRA
EREMU PRIBATUETAKO AZALERA	1.834,17	6.913,00	8.906,00	9.597,00	13.789,00	89.175,06	8.080,00	4.507,00	5.548,74	2.420,30	61.500,00	21.737,00	47.508,00	21.609,68	303.124,95
SISTEMA OROKORREN EREMU PUBLIKOEN AZALERA	588,82	1.390,22	1.823,58	1.229,74	2.344,24	0,00	1.951,66	1.183,48	1.387,55	1.144,47	11.107,97	4.240,46	5.420,96	0,00	33.813,13
JARDUKETA INTEGRATUAREN AZALERA OSOA	2.422,99	8.303,22	10.729,58	10.826,74	16.133,24	89.175,06	10.031,66	5.690,48	6.936,29	3.564,77	72.607,97	25.977,46	52.928,96	21.609,68	336.938,08
ETXEBIZITZA ERABILERAKO SABAIAREN ERAIKIGARRITASUNA M2-TAN SESTRA GAINEAN	2.616,99	6.194,05	8.111,58	5.465,49	10.672,69	52.087,36	8.674,04	5.388,57	6.220,10	5.238,73	49.882,90	19.054,65	24.488,00	0,00	204.095,15
BESTE ERABILERA BATZUETAKO SABAIAREN ERAIKIGARRITASUNA M2-TAN SESTRA GAINEAN	574,46	2.654,59	705,36	964,50	1.737,41	0,00	1.652,20	109,97	327,55	327,96	9.501,50	2.117,18	4.202,08	10.804,84	35.679,61
ERAIKIGARRITASUN OSOA SABAIAREN METRO KARRATUTAN SESTRA GAINEAI	3.191,46	8.848,64	8.816,94	6.429,99	12.410,10	52.087,36	10.326,24	5.498,54	6.547,64	5.566,69	59.384,40	21.171,84	28.690,08	10.804,84	239.774,76
J.I.-AREN ETXEBIZITZA ERABILERAREN ERAIKIGARRITASUN KOEFIZIENTEA S/G	1,43	0,90	0,91	0,57	0,77	0,78	1,07	1,20	1,12	2,16	0,81	0,88	0,52	0,00	0,61
J.I.-AREN BESTE ERABILERA BATZUEN ERAIKIGARRITASUN KOEFIZIENTEA S/G	0,31	0,38	0,08	0,10	0,13	0,20	0,20	0,02	0,06	0,14	0,15	0,10	0,09	0,50	0,11
J.I.-AREN ERAIKIGARRITASUN KOEFIZIENTE OSOA S/G	1,74	1,28	0,99	0,67	0,90	0,98	1,28	1,22	1,18	2,30	0,97	0,97	0,60	0,50	0,71
ETXEBIZITZA ERABILERAKO SABAIAREN ERAIKIGARRITASUNA M2-TAN S/G	0,00	137,78	61,24	0,00	2.284,71	0,00	0,00	1.158,04	478,70	1.369,90	4.627,26	1.873,34	3.553,77	0,00	15.544,74
BESTE ERABILERA BATZUEN SABAIAREN ERAIKIGARRITASUNA M2-TAN S/G	1.762,92	2.625,47	202,98	0,00	159,69	0,00	5.422,21	172,78	45,29	175,95	1.679,76	0,00	1.424,82	800,00	14.471,87
DAGOEN ERAIKIGARRITASUN OSOA SABAIAREN METRO KARRATUTAN S/C	1.762,92	2.763,25	264,22	0,00	2.444,40	0,00	5.422,21	1.330,82	523,99	1.545,85	6.307,02	1.873,34	4.978,59	800,00	30.016,61
ETXEBIZITZA ERABILERAKO SABAIAREN ERAIKIGARRITASUNAREN GEHIKUNTZA M2-TAN S/G	2.616,99	6.056,27	8.050,34	5.465,49	8.387,98	52.087,36	8.674,04	4.230,53	5.741,40	3.868,83	45.255,64	17.181,31	20.934,23	0,00	188.550,41
BESTE ERABILERA BATZUEN SABAIAREN ERAIKIGARRITASUNAREN GEHIKUNTZA M2-TAN S/G	-1.188,46	29,12	502,38	964,50	1.577,72	0,00	-3.770,01	-62,81	282,26	152,01	7.821,74	2.117,18	2.777,26	10.004,84	21.207,74
ERAIKIGARRITASUNAREN GEHIKUNTZA OSOA SABAIAREN METRO KARRATUTAN SESTRA GAINEAI	1.428,54	6.085,39	8.552,72	6.429,99	9.965,70	52.087,36	4.904,03	4.167,72	6.023,65	4.020,84	53.077,38	19.298,50	23.711,49	10.004,84	209.758,15
ETXEBIZITZA LIBREKO ERABILERAKO SABAIAREN ERAIKIGARRITASUNA M2-TAN S/G	0,00	3.771,54	4.891,45	0,00	7.317,50	37.356,01	5.204,42	3.696,36	0,00	3.143,24	22.812,90	12.182,13	16.114,31	0,00	116.489,84
ETXEBIZITZA TASATUKO ERABILERAKO SABAIAREN ERAIKIGARRITASUNA M2-TAN S/G	0,00	1.211,25	1.610,07	0,00	1.677,60	0,00	1.734,81	846,11	3.110,05	1.047,75	14.200,00	3.436,26	4.186,85	0,00	33.060,73
BOE-KO ETXEBIZITZA ERABILERAKO SABAIAREN ERAIKIGARRITASUNA M2-TAN S/G	2.616,99	1.211,25	1.610,07	5.465,49	1.677,60	14.731,35	1.734,81	846,11	3.110,05	1.047,75	12.870,00	3.436,26	4.186,85	0,00	54.544,57
ETXEBIZITZA BABESTUKO ERABILERAKO SABAIAREN ERAIKIGARRITASUNA M2-TAN S/G	2.616,99	2.422,51	3.220,14	5.465,49	3.355,19	14.731,35	3.469,62	1.692,21	6.220,10	2.095,49	27.070,00	6.872,53	8.373,69	0,00	87.605,30
JARDUKETA INTEGRATU OSOAREN GAINEKO DENTSITATEA ETXEBIZITZETAN HEKTAREAKC	120,01	73,09	74,69	56,09	64,32	57,30	86,10	93,62	99,00	154,37	68,48	72,10	45,38	0,00	60,35
EREMU PRIBATUAREN GAINEKO DENTSITATEA ETXEBIZITZETAN HEKTAREAKC	158,53	87,79	89,98	63,28	75,25	57,30	106,90	118,20	123,76	227,36	80,85	86,16	50,56	0,00	67,08
ETXEBIZITZA LIBREEN KOPURU OSOA	0	36	46	0	69	352	49	35	0	33	212	115	152	0	1.098,91
ETXEBIZITZA TASATUEN KOPURU OSOA	0	12	16	0	17	0	18	9	34	11	142	34	42	0	335,34
BOE ETXEBIZITZA KOPURU OSOA	29	13	18	61	18	159	19	9	35	11	143	38	46	0	599,19
ETXEBIZITZA BABESTUEN KOPURU OSOA	29	25	34	61	35	159	37	18	69	22	285	72	88	0	934,53
ETXEBIZITZA KOPURU OSOA	29	61	80	61	104	511	86	53	69	55	497	187	240	0	2.033,44
ESPASIO LIBREEN SISTEMA OROKORRAREN AZALERA	523,40	1.238,81	1.622,32	1.093,10	2.134,54	0,00	1.734,81	1.077,71	1.244,02	1.047,75	9.976,58	3.810,93	4.897,60	0,00	30.401,56
ZUZKIDURA OSTATUEN SISTEMA OROKORRAREN AZALERA	65,42	151,41	201,26	136,64	209,70	0,00	216,85	105,76	143,53	96,72	1.131,39	429,53	523,36	0,00	3.411,58
SISTEMA OROKORREN AZALERA OSOA	588,82	1.390,22	1.823,58	1.229,74	2.344,24	0,00	1.951,66	1.183,48	1.387,55	1.144,47	11.107,97	4.240,46	5.420,96	0,00	33.813,13

Oharra: "Hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarriren kalifikazio orokorra" izeneko O.2 planoetako dokumentazio grafikoa udal bide garraio sistema orokorra bezala definitu diren kaleak, ez dira sistema orokorrako azalerak bezala kontuan hartu hiri lurzoruko jarduerak integratuetai

L2 AUKERAKO JARDUKETA INTEGRATUEN KALIFIKAZIO OROKORRAREN HIRIGINTZA-DATUAK									
GETXOKO HAPO-REN AURRERAPENA _ HIRIGINTZA DATUAK	AI 11.1 NEGURI	AI 16.1 ALANGO	AI 16.3 ARKOTXA	AI 24.2 ITURRIBARRI	AI 31.1 MAIDAGAN	AI 36.1 ZUBILLETA	AI 37.1 VENANCIOS	AI 42.1 ORMAZA	GUZTIRA
EREMU PRIBATUETAKO AZALERA	8.906,00	9.597,00	13.789,00	82.032,00	5.548,74	61.500,00	21.737,00	47.508,00	250.617,74
SISTEMA OROKORREN EREMU PUBLIKOEN AZALERA	1.800,00	1.282,50	2.340,00	11.430,00	1.372,50	9.697,50	3.172,50	4.050,00	35.145,00
JARDUKETA INTEGRATUAREN AZALERA OSOA	10.706,00	10.879,50	16.129,00	93.462,00	6.921,24	71.197,50	24.909,50	51.558,00	285.762,74
ETXEBIZITZA ERABILERAKO SABAIAREN ERAIKIGARRITASUNA M2-TAN SESTRA GAINEAN	8.000,00	5.700,00	10.400,00	50.800,00	6.100,00	43.100,00	14.100,00	18.000,00	156.200,00
BESTE ERABILERA BATZUETAKO SABAIAREN ERAIKIGARRITASUNA M2-TAN SESTRA GAINEAN	1.200,00	855,00	1.560,00	7.620,00	915,00	6.465,00	2.115,00	2.700,00	23.430,00
ERAIKIGARRITASUN OSOA SABAIAREN METRO KARRATUTAN SESTRA GAINEAN	9.200,00	6.555,00	11.960,00	58.420,00	7.015,00	49.565,00	16.215,00	20.700,00	179.630,00
J.I.-AREN ETXEBIZITZA ERABILERAREN ERAIKIGARRITASUN KOEFIZIENTEA S/G	0,75	0,52	0,64	0,54	0,88	0,61	0,57	0,35	0,55
J.I.-AREN BESTE ERABILERA BATZUEN ERAIKIGARRITASUN KOEFIZIENTEA S/G	0,11	0,08	0,10	0,08	0,13	0,09	0,08	0,05	0,08
J.I.-AREN ERAIKIGARRITASUN KOEFIZIENTE OSOA S/G	0,86	0,60	0,74	0,63	1,01	0,70	0,65	0,40	0,63
ETXEBIZITZA ERABILERAKO SABAIAREN ERAIKIGARRITASUNA M2-TAN S/G	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
BESTE ERABILERA BATZUEN SABAIAREN ERAIKIGARRITASUNA M2-TAN S/G	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
DAGOEN ERAIKIGARRITASUN OSOA SABAIAREN METRO KARRATUTAN S/C	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
ETXEBIZITZA ERABILERAKO SABAIAREN ERAIKIGARRITASUNAREN GEHIKUNTZA M2-TAN S/G	8.000,00	5.700,00	10.400,00	50.800,00	6.100,00	43.100,00	14.100,00	18.000,00	156.200,00
BESTE ERABILERA BATZUEN SABAIAREN ERAIKIGARRITASUNAREN GEHIKUNTZA M2-TAN S/G	1.200,00	855,00	1.560,00	7.620,00	915,00	6.465,00	2.115,00	2.700,00	23.430,00
ERAIKIGARRITASUNAREN GEHIKUNTZA OSOA SABAIAREN METRO KARRATUTAN SESTRA	9.200,00	6.555,00	11.960,00	58.420,00	7.015,00	49.565,00	16.215,00	20.700,00	179.630,00
ETXEBIZITZA LIBREKO ERABILERAKO SABAIAREN ERAIKIGARRITASUNA M2-TAN S/G	4.800,00	3.420,00	6.240,00	30.480,00	3.660,00	25.860,00	8.460,00	10.800,00	93.720,00
ETXEBIZITZA TASATUKO ERABILERAKO SABAIAREN ERAIKIGARRITASUNA M2-TAN S/G	1.600,00	1.140,00	2.080,00	10.160,00	1.220,00	8.620,00	2.820,00	3.600,00	31.240,00
BOE-KO ETXEBIZITZA ERABILERAKO SABAIAREN ERAIKIGARRITASUNA M2-TAN S/G	1.600,00	1.140,00	2.080,00	10.160,00	1.220,00	8.620,00	2.820,00	3.600,00	31.240,00
ETXEBIZITZA BABESTUKO ERABILERAKO SABAIAREN ERAIKIGARRITASUNA M2-TAN S/G	3.200,00	2.280,00	4.160,00	20.320,00	2.440,00	17.240,00	5.640,00	7.200,00	62.480,00
JARDUKETA INTEGRATU OSOAREN GAINEKO DENTSITATEA ETXEBIZITZETAN HEKTAREAKC	48	34	62	305	37	259	85	108	937,60
EREMU PRIBATUAREN GAINEKO DENTSITATEA ETXEBIZITZETAN HEKTAREAKC	16	11	21	101	12	86	28	36	311,90
ETXEBIZITZA LIBREEN KOPURU OSOA	16	12	21	102	12	86	28	36	313,50
ETXEBIZITZA TASATUEN KOPURU OSOA	32	23	42	203	24	172	56	72	625,40
BOE ETXEBIZITZA KOPURU OSOA	80	57	104	508	61	431	141	180	1.563,00
ETXEBIZITZA BABESTUEN KOPURU OSOA	74,72	52,76	64,48	54,33	88,13	60,54	56,77	34,99	54,70
ETXEBIZITZA KOPURU OSOA	89,83	59,81	75,42	61,90	109,93	70,08	65,05	37,97	62,37
ESPazio LIBREEN SISTEMA OROKORRAREN AZALERA	1.600,00	1.140,00	2.080,00	10.160,00	1.220,00	8.620,00	2.820,00	3.600,00	31.240,00
ZUZKIDURA OSTATUEN SISTEMA OROKORRAREN AZALERA	200,00	142,50	260,00	1.270,00	152,50	1.077,50	352,50	450,00	3.905,00
SISTEMA OROKORREN AZALERA OSOA	1.800,00	1.282,50	2.340,00	11.430,00	1.372,50	9.697,50	3.172,50	4.050,00	35.145,00

Oharra: "Hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarriren kalifikazio orokorra" izeneko O.2 planoetako dokumentazio grafikoan udal bide garraio sistema orokorra bezala definitu diren kaleak, ez dira sistema orokorrako azalerak bezala kontuan hartu hiri lurzoruko jardueren integratuetan.

FIII.3.2.7. Plan orokorraren berrikusterako egin eta osatutako udal kartografia ofizialean kalifikazio orokorraren adierazpen grafikoa

Aurrerakin honen alternatiba bakoitzaren kalifikazio orokorraren definizioa udal kartografia ofizialaren gainean marraztuz landu da, gehienbat 1/500 eskala zehaztapeneko kartografia baten gainean eta 1/500 eskala zehaztapeneko kartografia eguneratu ez den eremuetan hiri lurzoruko zati txikiago baten 1/1000 eskala zehaztapenez.

FIII.1.2.2. “Hiri lurzoru eta urbanizagarriaren kalifikazio orokorra” eta FIII.1.2.3. “Lurzoru urbanizaezinen kalifikazio orokorra” ataletan aipaturiko zona guztien zehaztapena, aurretik aipaturiko kartografiaren gainean zehaztasunez definitu da, aldiz lurzoru urbanizaezinean 1/5000 kartografiaren gain definitu da. Hauek adierazteko plano bi sortu dira, ondorengo ezaugarri eta edukiarekin, bederatzitako alternatiba bakoitzerako, herritarren partaidetzarako foroaren laurak eta hiru teknikoak gehi bi aldaera.

“Lurzoru urbanizaezineko sailkapena eta kalifikazio orokorra” izeneko O-1 plano, 1/7500 eskalan, udalerritik guztia bere baitan hartuz eta “Hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarriaren kalifikazio orokorra” izeneko O-2 plano, 1/5000 eskalan, A eta B orri bi dituen, hauekin Getxoko udalerritarren guztizko azaleraren kalifikazio urbanistikoa deskribatzen da.

Aipaturiko 3 planoak, tolesturik eta zorro gardenetan jasota, alternatiba bakoitzaren idatzizko dokumentazioaren ondoren erantsen dira.

FIII.3.2.8. Hiri lurzoru, lurzoru urbanizagarri eta urbanizaezineko irabazte-xedezko baliapidetarako zona eta sistema orokor zona publikoen zerrenda eta azalerekin taulak

Behin alternatiba bakoitzaren kalifikazio orokorraren zonen definizio grafikoa marraztuta, erabilera bereizgarri edo nagusia adieraziz zona guztiak zerrendetan sailkatu dira, haien azalera neurtuz eta alderdiren bat argitzea behar izan denean azalpen oharrak erantsiz, honela, ondorengo irizpidearekin antolatutako zona guztien izena eta azalera modu errazean ikus daiteke.

Ondoren erantsen diren tauletako informazioaren antolakuntzaren zehaztapena:

✓ Hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarriaren irabazte-xedezko baliapidetarako zonak

- Etxebizitza zonak
- Ekipamendu zonak
- Hirugarren sektoreko zonak
- Industria zonak

✓ Hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarriaren sistema orokor zona publikoak

- Ekipamendu sistema orokorrak
- Espazio libreen sistema orokorrak
- Ur sistema orokorra

➤ Garraio sistema orokorra

- Foru bide sistema orokorra
- Udal bide sistema orokorra
- Oinezkoen bide sistema orokorra
- Hiri igogailu sistema orokorra
- Trenbide sistema orokorra
- Portu sistema orokorra

➤ Instalazio sistema orokorrak

- Saneamendu sistema orokorra. Kontrolerako elementuak
- Elektrizitate banaketa sistema orokorra
- Telekomunikazio eta antena sistema orokorra
- Hondakinen tratamendurako sistema orokorra

✓ **Lurzoru urbanizaezinean zona pribatuak**

- Ekipamendu zonak
- Hirugarren sektoreko zonak
- Industria zonak

Oharra: Eremu hauek oso urriak dira, gainera 2/2006 Legearen araudiak ez ditu baimentzen erabilera hauek lurzoru sailkapen honetan.

✓ **lurzoru urbanizaezinean sistema orokor zona publikoak**

- Ekipamendu sistema orokorrak
- Espazio libreen sistema orokorrak
- Ur sistema orokorra
- Garraio sistema orokorra
 - Foru bide sistema orokorra
 - Udal bide sistema orokorra
 - Aparkaleku sistema orokorra
 - Oinezkoen bide sistema orokorra
 - Bideen sistema orokorra
 - Trenbide sistema orokorra
 - Aireportu sistema orokorra
 - Portu sistema orokorra
 - Bidegorri sistema orokorra

➤ Instalazio sistema orokorra

Behin kalifikatutako zonak zerrendetan sailkatuta eta dagozkien azalerak neurtuta, erabilera nagusi eta lurzoruaren sailkapenaren arabera taldekatuak, laburpen orri bat landu da, lurzoru klase desberdinetako zona publiko eta pribatuen arteko sailkapena bakarrik adieraziz.

Udalerriaren sailkapenaren definiziorako erabilitako lurzoruaren hiru klase ezberdinen azalerak ere eranstean dira, honekin Aurrerakin honen hirigintza kalifikazioaren funtsezko datuak adierazten dira.

Kalifikazio askoren arteko gainjartzeak daudenez, neurtzerakoan Alternatiba ezberdinetako azalera anitzetan errore txikiak eman ahal direla aintzat hartu behar da. Indarrean dagoen legediak kalifikazioen gainjartzeak onartzen ditu. Gainjartze hauek gehienbat lerro izaerako garraio sistema orokorren eta ur sistema orokorren artean ematen dira, baita hein txikiago baten, hauen eta beste kalifikazio batzuen artean.

Aintzat hartu behar da, aipatutako tauletan edukitako datuek zona ezberdinen azaleren zenbatekoak eta lurzoru klase bakoitzean dituzten proportzioen ikuspegi orokor bat adierazteko helburuarekin egin direla, honela, adibidez alternatiba ezberdinetako hiri lurzoru edota lurzoru urbanizagarrian irabazte-xedezko baliapidetarako zonen ehunekoak eta sistema orokor zona publikoen ehunekoak ikus daitezke.

Aurretik aipaturiko taulak alternatiba bakoitzaren berezko dokumentazioaren ondoren erantsiko dira.